

puntu

Indianoek Debagoienan lagatako ondarea

Izaskun Ibabe psikologoari elkarriketa



Ikuskizunean parte hartuko duten Eskoriatzako elkarteetako ordezkariak, entsegua baino lehen. Goiko argazkian Mari Jose Pagaldai zena.

Hazia erein da

Mari Jose Pagaldai eskoriatzarra gogora ekartzeko ikuskizuna egingo dute Eskoriatzan / 13

IMANOL SORIANO

Espaloia, negoziazio bidez

Elgetako kafe antzokiaren kudeaketa prozedura negoziatuz esleitu dute, lehiaketa publikoa hutsik gelditu ostean / 19

Wolfram Encounter: 28 orduko 'e-sport' bideo joko txapelketa izango da asteburuan, Bergaran / 15

Lujanbio eta Cano, literaturaren eta bertsolaritzaren arteko harremanaz / 23

SINADURAK

	AINHIZE BARRAINKUA / 11
	RAFA MUNGIA / 5
	PEDRO GARITANO / 16
	IBON ARRUPE / 7
	AINTZANE OIARBIDE / 32

www.multioplicasgipuzkoa.com

gama altuko
2 m^o betaurreko
progresibo
197€

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRETERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Kontsulta itzazu zure optikaren behararen esangarriak. Ezin da beste enpresa bati erantsi.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

"Bozgorailu itzela dira euskal kulturarentzat"

KIKE AMONARRIZ SOZIOLINGUISTA ETA KOMUNIKATZAILEA

Abbadia saria jaso zuen 2015ean, euskararen erabilera arnasberritu, gizarteratu eta hedatzeko egindakoaren aitoren modura; Tokikom jardunaldietan hizlarietako bat izango da

Ubane Madera DEBAGOIENA

Euskal Filologian lizentziatutako soziolinguista, umorista eta telebista-aurkezlea da. Tolosako Udaleko euskara teknikaria eta Siadeco elkarteke soziolinguista izan da Kike Amonarriz.

Toki komunikabideak euskararen transmisio katean da landuko duzun hitzaldiaren gaia; ze leku/garrantzi maila dute toki komunikabideek kate horretan?

Hasteko, euskarazko toki komunikabideak zertarako sortu ziren gogoratzea komeni zaigu. Izan ere, herri-aldizkarien mugimendua 90eko hamarkadan sortu zen euskara elkarteek bultzatuta helburu nagusi hauekin: euskarazko irakurgaiak euskaldunak zeuden etxe guztietara heltzea, gertuko informazioa euskaraz eskaintzea, euskara elkartearen eragina zabaltzea eta herri/eskualdeetako euskal komunitatea ahaldundu eta trinkotzea. Tokiko hedabideak oso baliabide garrantzitsuak izan dira eta dira euskararen transmisioari begira, gertuko komunitatean euskaraz bizi ahal izateko esparruak sortu edo irabazi dituztelako, eta tokiko euskarak prestigioatu. Bestalde, erreferente eta profesional euskaldunak sortu dituzte, euskaraz egiten den guztiari ikusgarritasuna eta garrantzia



Kike Amonarriz soziolinguista eta komunikatzailea. GOIENA

eman diote eta bozgorailu ikaragarria izan dira euskal kulturarentzat. Beren funtzio eta helburuen garrantzia begi-bistakoa da. Baina, une honetan gure buruari egin behar diogun galdera, agian, beste hau da: zein neurritan ari dira betetzen aipatu ditugun helburuak eta funtzioak? Egia da etxe askotara iristen direla eta euskarari eta euskalgintzari egiten dioten ekarpena berebizikoa dela, baina iruditzen zait, batzuetatik bestetara alde handiak egon arren, oro har, ez direla iristen funtzio

horiek guztiz betetzera: geografikoki hartzen duten eremua mugatua da, dauden lekuetan askotan ez dira heltzen euskaldunen gehiengoarengana... Bidea egin dugu, baina, lan handia dugu egiteke aurretik.

Transmisioa, sarri, ahozko jardunarekin lotu ohi dugu. Toki komunikabideek zelan lagundu dute transmisio horretan? Eta euskal komunitatearen sareari?

Transmisioa gauzatu dadin, ez da nahikoa etxean jasotzea; are gutxiago, transmisioa, batez ere, familietatik kanpo egiten den

gurea bezalako hizkuntza bati dagokionez. Alde horretatik, tokiko komunikabideek hainbat esparrutako terminologia eta esapideak gizarteratzen lagundu dute, euskalkiak eta herrietako ondare linguistikoa transmititzen lagundu dute eta hizkera lokalen eta estandarraren arteko dikotomiari irtenbide praktikoa eman diote.

Hizkuntza hegemoniko edo estatu hizkuntzen ondoan bertako hizkuntzak sustatu eta babesteko ze punturaino dira beharrezko?

Gaur egun, hizkuntza bat ezin liteke normalizatu, hedabideetan ez badu presentziarik. Datozen hamarkadetan ez badugu lortzen onarpen eta eragin sozial handia izango duen euskarazko hedabide-sare zabala osatzea, euskararen normalizazio prozesuak nozitu egingo du gabezia hori. Gertutasuna lantzea da euskarazko komunikabideon indargune nagusietako bat; zer esanik ez, tokikoena. Eta horrek aukera ezin hobeak eskaintzen ditu, indar handiagoa duten hedabideak iritsi ezin daitezkeen leku eta esparruetara iristeko eta beste inon aurkitu ahal ezingo den informazioa emateko. Bestalde, eta etorkizunera begira, iruditzen zait hedabide mota guztien arteko harremanak eta sinergiak gehiago landu beharko lirakekeela, eta hedabideen esparruan ditugun hutsune nabarmenenak osatu. Tokiko komunikabideek gertuko informazioa lantzen jarraitu behar dute eta nazio mailako hedabideetako zubiak eraikitzen.

Uztargarriak dira toki komunikabideak nazio mailakoekin hizkuntzarekiko eraginkortasun maila handitzea?

Zalantzarik gabe esango dut baietz. Medio bakoitzaren ezau-

garriak eta nortasuna errespetatuz, elkarlana eta harreman-sareak zabaldu egin beharko lirakeke: bai teknikoki, bai programen eta profesionalen aldetik, elkarren publizitatea eginez, eta abar. Tokikom-ek lan handia egin du norabide honetan tokiko komunikabideen esparruan, baina maila orokorragoan ere zabaldu beharko lirakeke era horretako elkarlanak bideratzeko moduak.

Batzuek diote gehiegizko laguntzak jasotzen ote dituzten toki komunikabideek. Etxe handian diharduen profesional baten ikuspuntutik, horrela da?

Ez dut uste diru laguntzak gehiegizkoak direnik, ezta gutxiagorik ere. Hedabideen esparrua, gainera, abiada biziko aldaketan ari da eta hizkuntza hegemonikoan aldean ez badugu atzera geratu nahi eta etorkizuneko erronkei aurre egin, zalantzarik gabe, diskriminazio positiboa egiten jarraitu beharko da. Hori delako modu bakarra, hizkuntzaren normalizazioa erdiesteko eta herritar euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko. Horrekin batera, hala ere, eta orain arte egin duten bezala, tokiko eta bestelako hedabideek premia, eskaera eta joera berrietara egokitzen joan beharko dute etengabe, hasieran aipatu ditugun helburu horiek lortze aldera; gure helburua ez baita bakarrik kaleratzea, gizartean ahalik eta eraginik eta onarpenik handiena lortzea baizik.

"HIZKUNTZA BAT EZIN LITEKE NORMALIZATU HEDABIDEETAN EZ BADU PRESENTZIARIK"

Antzuola-Bergara, foru aurrekontuetako lehentasun bat

838 milioiko aurrekontu propioa izango du Foru Aldundiak datorren urtean, aurtan baino %3,16 gehiago

Eneko Azkarate DEBAGOIENA

"Egonkortasunezko aurrekontua" dela adierazi zuten ahaldu nagusi Markel Olanok, Finantza diputatu Jabier Larrañagak eta Finantza eta Aurrekontu zuzendari Jose Corchonek, aurrekon-

tuen proiektu aurkezpenean, astelehenean. Aurrekontuetako lehentasunetako bat Antzuola-Bergara bideko lanekin jarraitzea da, Gipuzkoako Biribilgunea proiektua amaitzeko, eta, horretarako, 12 milioiko haz-

kundea du aurrekontuan Bide Azpiegituren Departamentuak; denetara, 89,4 milioiko aurrekontua.

Ekonomia sustapena eta gizarite politikak dira aurrekontuen ardatz nagusiak. 19,3 milioi gehiago bideratuko dituzte Gizarite Politika Departamentura, mendekotasun laguntzak eta egoitzetako plazak indartu eta Kabia eta Elkar-Ekin programen garapenerako. Gizarite politikek 363,6 milioi izango dituzte, iaz baino %5,60 gehiago.

Olanok ekonomia agertokiaren irakurketa baikorra egin zuen. Zehaztu zuen Ekonomia Susper-tzeko Planak datorren urtean beste 50 milioi bideratuko dituela enpresa ehuna indartzera. Ekonomia Sustapenak 70 milioi euroko aurrekontua izango du. Ustekabe handirik ezean, proiektua onartu egingo da, EAJ-ren eta PSE-EEren botoekin.

"Kezkagarria da"

EH Bilduren Gipuzkoako Batzar Nagusietako taldeak "berezik

kezkagarritzat" jo du aurrekontuen batez bestekoa %5,51 igotzen denean, gizarite politiketan, ekonomiaren sustapenean eta kultura alorretan "jaitziera" proposatu izana. Datozen asteetan zabalduko den ebazpenak aurkezteko epean "gizarite politikak lehen lerroan" ezartzeko proposamena "mahaiaren gainean" jarriko duela aurreratu du.

Ahal Duguk, berriz, esan zuen "batzuek existitzen ez den ongizate oasia" saldu nahi diotela jendarteari.

Saharaldeba izeneko elkarte ofiziala da jada

Debagoieneko kolektibo sahararren elkarte da eta helburu nagusiak dira gizarte ezberdinen arteko integrazioa bultzatu eta gizarteko arlo guztietan eragitea; horretarako, zenbait erakunde eta alderdi politikorekin harremanetan jarriak dira

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Badira hilabete batzuk Debagoieneren sahararren elkarte sortu zela, eta orain, urrats bat aurrera egin du. Izan ere, ofizialtasuna lortu du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren onespenez jaso ostean. Hori horrela, Saharaldeba izena izango du aurrerantzean elkarte honek.

Saleh Salek elkarteko kidearen esanetan, gizarte ezberdinen arteko integrazioa bultzatzea eta gizarteko arlo guztietan eragitea da Saharaldebaren helburua. "Gizarteko arlo guztietan eragitea da gure asmoa: arlo kulturalen, politikoan, sozialean... Kultura ezberdinen arteko zubia izan nahi dugu, eta hemen gure kultura gehiago ezagutu dezaten saiatuko gara, nahiz eta dagoeneko ezagutzen duten", azaldu du Salekek.

Alderdi politikoeekin lan

Salekek nabarmendu du bailarako sahararren kolektiboa handia dela, kontuan hartzekoa. Horregatik, erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlanean aitzeko prest daudela gaineratu du, baita alderdi politikoeekin ere. "Aretxabaletako EH Bildurekin egon gara, baita Arrasateko Podemosekin ere, eta alderdi gehiagorekin biltzea da



Saharaldeba elkarteko hiru kide, erdian Saleh Salek. **ENEKO AZURMENDI**

gure asmoa. Hala ere, bereziki EH Bildurekin egingo dugu lan. Zehaztu dugu bailara mailan elkarlanean arituko garela eta udal bakoitzean kontaktua izango dugula. Gure proposamenak entzun eta laguntzeko prest azaldu dira", dio.

Saharan, egoera zail

Bestalde, elkarteko kideak gogorarazi du Saharan bertan bizi duten egoera oraindik ere ez dela samurra, eta ez dela horretaz hitz egiten. Horregatik, gaineratu du ezin direla gelditi egon.

"Mugitu egin behar dugu; izan ere, askotan, herri txikiak lo hartuz gero, handiek jan egiten dute. Eta hori ez da bakarrik Saharan gertatzen ari, beste hainbat lekutan ere bai", aldarrikatu du.

Domekan, urteurrena

Azaroaren 6an Marokoko Sahara mendean hartu zueneko Martxa Berdearen 41. urteurrena betetzen da. Hori dela eta, manifestazio bat egitekotan ziren. Baina, eguraldi txarra emanda dagoenez, atzeratu egingo dute.



Irati Mujika artxiboko irudi batean Aramaion. **GOIENA**

Irati Mujikak jarritako tortura salaketa berriz ikertuko da

Hiru urteren ostean, Auzitegi Konstituzionalak onartu du 2010ean jarritako salaketa ez zela behar bezala ikertu

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Auzitegi Konstituzionalak berriro ikertuko du Aramaion bizi den Irati Mujikak torturak jasandakoa jarritako salaketa. 2009ko azaroaren 24ko goizaldean Guardia Zibilak Irati Mujika atxilotu zuen Amezketan, Segiren aurkako sarekada batean (2014an bera eta beste 39 gazte absolutu zituen Auzitegi Nazionalak). Espainiako Poliziak asetebez eduki zuen inkomunikazio egoeran, eta tarte horretan torturak jaso zituela salatu zuen 2010eko apirilean.

Hainbat helegite jarri ostean, 2013ko martxoan auzia artxibatzea erabaki zuen Madrilgo Prohibitza Auzitegiak. Hori ikusirik, kasua Konstituzionalera eramatea erabaki zuen Mujikak, eta hiru urte baino gehiago pasa ondoren etorri da erantzuna.

Auzitegi Konstituzionalak tortura salaketaren artxibatzea

bertan behera uztea agindu du, ez zirelako hura frogatzeko baliabide guztiak erabili. Auzi medikuen deklarazioa aintzat hartuta bakarrik artxibatu zen kasua. Ez ziren kontuan izan Mujikak berak edo polizia etxean deklaratu zuenean egon zen ofiziozko abokatuak egin zitzaizkion deklarazioak. Hori dela eta, Francisco Perez de los Cobos buru duen epaimahaiak ebatzi du ez zela ikerketa eraginkorra egin.

Bide batez, zaintza judizial eraginkorrerako eskubidea urratu ziotela onartu diote Irati Mujikari, eta kasua berriro ere ikertzea erabaki dute. Atzo goizean deitu zuten Mujika Madril berriz deklaratzeko. "Bere egunean egindako salaketa berretsi dut. Orain epaileak ikusi beharko du kasua artxibatu edo guardia zibilen aurkako epaiketa batera iristen den nire tortura salaketa".



EROSKI

ARRASATE



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

* Eskaintza baliagarria izango da EROSKI HIPERMERKATUETAN, 15€ baino gehiagoko erosketetan, urdaitegian.

HIPERMERKATUETAN SOILIK

Iarunbata

5

azaroa



Eurentzat, bazkide guztientzat

-%25*

URDAITEGIAN,
GAZTETAN ETA URDAIAZPIKO OSOETAN



Zure txartelean
itzuliko dizugu

Trans despatologizazioa orain

MARIA MUFFIN

KITZIKAN DEBAGOIENA
DEBAGOIENA

Transexualitatearen despatologizazioaren aldeko ekimena aldarrikatu nahi dugu Kitzikan sexu askapenerako mugimendutik.

Gaur egun, transexualitatea –edo transgeneroa– gaixotasun patologiakotzat dute instituzioek; tartean, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak.

Gizartearen pertzepzio eta kontzientzietan aldaketa bat izaten ari bada ere, instituzioek markatzen dituzten konnotazio negatiboak inklusio, onarpen eta errekonozimendurako oztopoak besterik ez da.

Kitzikanez ezinbestekotzat jotzen du honen inguruko azterketa sakon eta zorrotza egitea. Trans asko dira beraien eskubideen urraketa

eta erasoak bizi dituztenak egunerokoan, norbanako zein instituzio ezberdinen aldetik.

Arrasaten esparru horietako batzuk identifikatu eta ikusarazte ekintza bat egin dugu.

Transexualitatearen errealitatea plazaratu eta injustizia ikusarazteko:

1-Lanbide: Pertsona transexualak ikaragarritzko jazarpen eta bazterketa bizi dute lan esparruan, eta diskriminazio horri instituzioen babes falta gehitu behar zaio. Askotan, egoera honek prostituziora edo baldintza duin gabeko lanpostuak onartzera behartzen ditu transexualak.

2-Eliza: Eliza da jazarpen eta zapalkuntza bultzatzen duen organo gorena. Elizak ezinbestekoa du generoen klasifikazio dikotomikoa gizonen eta emakumeen arteko hierarkia mantentzeko.

3-Ospitalea: Jaiotzez gizon edo emakume klasifikatzea

amaitu beharra dago, genitalizazioa mugarri izandako klasifikazioaren *legeak* egiten baitu transexualitatea gaixotasun edo *anormaltasuna* bezala klasifikatzea.

4-Katalogazio guneak: Instituzioek gizon-emakume dikotomian sailkatzen dute gizartea. Honek gizonen eta emakumeen tarteko trantsizioan gaudenok diskriminatzen gaitu bete-betean, eta ez du inolaz ere laguntzen gure gizarteratzean.

Jakin dugu hasiak direla sortu ditugun ekimenaren *trans guneak* kentzen. Bada, salatu nahi genuke Arrasateko instituzioek transexualitatea ezkutuan mantendu eta pairatzen duten injustizia eta sufrimendua plazaratu nahi ez izatea.

Ulertezina baita *trans guneak* 12 ordu baino ez iraun izanak.

Guk eskubide guztiak defendatzen jarraituko dugu,

ezinbestean guztion eskubide eta bizi baldintza duinak behar direlako.

Esaiezue

MIREN AMURIZA

HTTPS://GOO.GL/38MCVC

Ez da ez Leizarragak euskaratua, ez Literatura Unibertsala, ez hizkuntza gutxitu batean idatzia (ez dakit zutabe batean itzulpen bat ematea zilegi den ere), baina klitori errugabeek eskertuko dutelakoan, hona Natalia R. Ruanok *Codigo nuevo* atarian eginiko maitale moten sailkapena.

"1. Muskuilua: Hau hasi ondo hasi da eta bat-batean ai, muskuilu atzazalak! Ez horiekin ukitu, mesedez, moztu egingo nauzu eta! 2. Bila dabilena: Honek linterna eta brujula behar lituzke klitoria topatzeko. Hain zaila ere ez da, aizu, denok dugu leku berean! 3. Esku hila: Bai, klitoria sentibera da oso,

baina... Ei! Hor al zaude? Lo hartzeaz nago... 4. Satorra: Non hasten zaizun atzamarrarekin zuloa egiten, pala batekin balebil bezala, eta zuk zeure baitan: ea zelan esaten diodan txarto dabilela, txarto, txarto... 5. *Turmix* era: Baina zertan habil, laztana? Mugimendu zirkularrak egiten *turmix*-ean patata purea pasatzen ari bahintz legez?! 6. Tinbrea: Bai? Nor da? Klitoria jo eta jo ari zaizuna, tinbrea bailitzan, hain grinatsu, ezen barrurantz sartuta lagako baitizu. 7. Espartzua: Hemen jenioetan jenioena, bagina haragi-bizi uzten dizuna; espartzuarekin igurtz zaitzaten gustatzen zaizula uste duena, makarroien bandejatik tomate itsatsia kendu behar balu legez. Elkartasunez, neskak, klitori errugabeak mintzen segi ez dezaten, hurrengoan esaiezue".

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
 - Ureztatze sistemak
 - Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
- Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



ZABALIK

RAFA MUNGIA GOIENA.EUS/KOMUNITATEA

Barra libretik, plasmara

Lankide batek ohartarazi ninduen orain dela gutxi ondorengo gogoetarekin: "Euskal Herriko kirol talde boteretsuenak komunikabideak konpetentzia bezala ikusten ditu; hortaz, klubak bere webgunera igotzen ditu elkarrizketa sortak futbolariekin".

Informazioa inoiz baino eskuragarri dagoen aro honetan kezkatzeko arrazoiak baditugula sumatzen dut azkenaldian, eta, bide batez, kazetariok gure buruari begiratzeko unea heldu dela iruditzen zait.

Hamaika aldiz egurtu dugun politikari *plasmazalearen* jarraitzaile sutsuak erakunde, gobernu eta kirol talde askotan ditugu ustezko komunikazio librearen zaindari gisa.

Teknologia berriek informazioa zabaltzeko ematen duten aukera azkar eta merkearen aitzakiarekin zera sinestarazi nahi digute: hartzaileak eskatutakoa dela eta ase beharra dagoela *informazio* gose hori.

GU KAZETARIOK ERABILTZEN GAITUZTE LANBIDEAK BIZI DUEN EGOERA ESKASA BALIATUZ

Horretarako, eta gizartea zurrumbilo batean sartuta dagoela aprobetxatuta, gu kazetariok erabiltzen gaituzte lanbideak bizi duen egoera tamalgarria bezain eskasa baliatuz.

Erredakzioetan ez omen dago jenderik prentsa

agerraldietara joateko –egia gordina eta penagarria–, galdera deserosoak egin edota protagonisten beste aldea erakutsiko digun detaile hutsal bat hartu eta hortik tiratzeko.

Eskura jarri diegu erabakia eta estrategia.

Nik zabaldutako informazioak eta mezuak ez dit ihes egingo, arriskuak murriztu eta, gainera, gizarteari begira inoiz baino komunikazio libre eta irekiagoa egiten dudala *saltzeko* abagunea, ezta amestuta ere!

Esna gaitezen garaiz eta eman diezaiogun gizarteari, hartzaileari, merezi duen informazioa eta izan dadila bera aukeraketa egiten duena.

Eta beste erremediorik ez badago, ez dezatela, behintzat, *kazetaritza* hitza erabili; galderarik gabeko adierazpenekin denok dugu asko galtzeko: kazetariok duintasuna eta gizarteak, gertatzen denaren arrazoiak ezagutzeko aukera. Ez da gutxi!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE GOIENA.EUS/KOMUNITATEA



ZEUK ESANA

Ze iritzi duzu zoologikoen gainean?

ZOOFOBIKOA

ARRASATE

Gorrito ditut. Animaliek aske bizi behar dute, libre.

Gainera, horietako askotan, oso egoera txarrean daudela ikusten da: argi dago jaten ere ez dietela ematen.

Niregatik izango balitz, munduko zoologiko guztiak itxiko nituzke.

PATXI MINO

ARRASATE

Animaliak ondo tratatuta badaude, nire iritziz, oso interesgarriak dira

zoologikoak, gauza asko ikas daitezke bertan.

Guk geuk bizpahiru bisitatu ditugu azkeneko urteotan, eta guztietan ere oso ondo ibili gara. Gainera, gure umeei asko gustatzen zaizkie animaliak, eta zoologikoek aukera ematen dute ezohiko piztiak-eta gertu-gertutik ikusteko. Pentsa... tximinoekin gozaten dute gehien; badakite haiengandik gatzela, eta barre algarak egiten dituzte. Hegazti exotikoak ere bitxiak dira, eta leroek dituzten koloreak,

adibidez, oso deigarriak egiten zaizkie gure umeei.

MARTIN BITXO

ONATI

Bi beso eta bi hanka dituzten batzuk sartuko nituzke zoologikoetan, baina, tamalez, haiek libre daude.

Zoologikoetan dauden animaliak, berriz, handik aterako nituzke, libre bizi daitezen.

Harrigarria da, oraindik ere, XXI. mendean, zoologikoak egotea *lehen* munduan.

HURRENGO ZENBAKIAN: HILDAKOEN ERRAUTSAK ZABALDU ETA ETXEAN GORDETZEA DEBEKATU DU AITA SANTUAK; ZER DERITZOTU? Iritzia emateko: berriak@goiena.eus.

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Goizatz Arana.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber
Aranburuzabala (Kultura),
Leire Kortabarria (Ekonomia).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitate

Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko
Jaurlaritzak
diruz
lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

PROTAGONISTA

"Zazpigarrena lortu gura dut, baina aurkariak ere badaude"

DAVID GARTZIA KORRIKALARIA

Mireia Bikuña DURANGO
Zapatuan jokatuko dute XII. Antxintxika lasterketa Soraluze eta Bergara artean. Ehunka korrikalari egongo dira irteeran, eta, guztien gainetik, izen propio bat: David Gartzia durangarra. Azken sei lasterketak irabazi ostean, zazpigarrena dauka buruan.

Helburu zehatza daukazu zapaturako: txapela edo txapela. Bai. [Barre] Zazpigarrena lortu gurako nuke eta hori lortzeko prestaketa egin dut. Ondo nago. Gogotsu. Baina, azken unean, lasterketa bera da bakoitza bere lekuan ipintzen duena.

Ze beste faktorek eragin dezakete?

500 bat korrikalarik parte hartuko dugu, eta urtetik urtera, prestaketa hobe egiten dugu guztiok. Kontrarioen maila ere kontuan hartu behar da. Egunean norberak dituen sentazioak nolakoak diren, eguraldia...



David Gartzia, korrika. ARITZ GORDO

Seitan irabazi ostean, buruz jakingo duzu ze estrategia erabili. Nire egoera fisikoaren eta kontrarioen araberako taktika planteatzen dut. Baina egia da oso ondo ezagutzen dudala ibilbidea. Hamar kilometro

dira, eta badakit non dauden aldapak, non aldatu dezakedan erritmoa... Hori guztiori oso mesedegarria da niretzat eta baita urtero parte hartzen duten beste hainbatendako.

Lasterketa kutuna da zuretzat. Zergatik?

Faktore asko daude. Ibilbidea oso polita da, antolatzaileak finak eta adeitsuak, zaleek asko animatzen dute... Oso gustura joaten naiz urtero. Bereziki hunkigarria da herri barruan egiten den azken kilometroa. San Martin plazan bukatzea izugarri polita da. **Egun eguzkitsuen ostean, euria eta hotza datoz zapaturako. Kalte edo mesede egiten dizu horrek?** Nahiago ditut tenperatura freskoa eta euria. Gorputza berotu ostean, nahiago dut euripean korrika egin. Alde horretatik, ez daukat aitzakiarik.

Biharkoaren ostean, Behobia dator. Beste egun garrantzitsua zuretzat.

Soraluze-Bergara entrenamendu saioa izango da Behobiarako. Bi lasterketak oso ezberdinak dira, baina bateragarriak. Orain arteko prestakuntza Donostian bukatuko da. Iazko denbora hobetu gurako nuke.

Eta Behobiaren ostean, zer?

Bi asteetako atsedena hartuko dut. Korrika alde batera utzi eta beste kirol batzuk egingo ditut. Hurrengo erronka kros denboraldia izango da, eta gorritz markatuta daukat Euskal Herriko kros txapelketa.

HAU BE BADOGU!

Osakidetzako kartelaren adarjotzea



Osakidetzako kartel bateko euskarazko itzulpen okerraren aurrean (gaztelaraz *Sala de Curas*, euskaraz *Apaizen Gela*) hainbat euskaltzaleren harridura eta haserre txioekin bete da Twitter zubian.

Hala ere, martitzenean, Jon Darpon Osasun Saileko kontseilariak berak azaldu zuen, Twitter bidez, kartela gezurrezkoa zela. *@jdarpon*: "Kartel hori gezurrezkoa da, hemen duzue benetakoa. Osakidetzan euskera garrantzitsua da".

Hona hemen, gezurra zela jakin osteko txio pare bat: *@KikeAmonarritz*: "Apaizen gela kartela dela eta *@jdarpon* sailburuak argitu duenez gezurretazkoa da. Hona frog. Ederki sartu digute ziria!".

@XabierEuzkitze: "Apaizen gelarena fake bat da *@jdarpon* sailburuak argitu duenez. Geuri ere zauritxo bat sendatu zaigu".

Bisitari ugari zubian bailarako museoetan

Bergarako Laboratoriumek eta Leintz Gatzagako Gatz Museoak bisitari ugari izan dituzte zubian.

@BergaraMuseoa: "Lehen bisita eginda! Museoa jendez gainezka izan dugu. Gidaria, Mikel Alberdi historialaria da... Luxu bat gurekin izatea!".

@gatzmuseoa: "Santu Guztien eguna Gatz Museoan: kultura, jakingura, ikasgura, barneraketa... *@debagoiena @goiena @BergaraMuseoa #LeintzGatzaga*".

ITURRI ONETIK

25. aldiz, amodioa gutun bitartez

"Berrikuntzaz beterik dator aurtengo honetan elkartek antolatzen duen lehiaketarik maitagarriena! 25. urteurrena izanik, lehen aldiz, amodiozko esaldien 1. lehiaketa antolatu dugu". Publikoki oraindik iragarri ez duten arren, berbek erakusten duten moduan, etorri badator Bergarako Jardun Euskara Elkartek antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehiaketa. Lanen entrega-eguna zehaztuta dute: urtarrilaren 8a; urtarrilaren 26a, berriz, amodiozko esaldiendako -Whatsappez bidali behar dira azken horiek-.

GORA ETA BEHERA



BERGARAKO UDALA



Traste zaharrak batzeko egutegia ezin errespetatu

"Azken bi asteetan etxeetan sortutako trasteak Bergarako kale bazterretan agertu dira behar ez diren egun eta tokietan", Bergarako Udalak azaldu duenez. Horren aurrean, zerbitzuaren egutegia eta bilketaguneak errespetatzeko dei egin nahi die bergarrei Udalak. Informazio gehiago eskuratzeko edo zalantzak argitzeko: 943 79 33 99 (Debagoieneko Mankomunitatea).



Besaideko presidente ohi Imanol Exposito, zozketako irabazle Ander Etxeberria eta Besaideko presidente Aitor Zubiaga. JOKIN BEREZIARTUA

Iturritxipagaina herriari eman, asmo berrietarako

Monterron hasiera eta bukaera izango duen ibilbide homologatu berri bat atondu gura du Besaidek datorren urterako, Udalarekin elkarlanean; asmo orokor bat dago atzean: "Herriko tontorrik esanguratsuenak modu duinean jarri nahi ditugu eskuragarri"

Jokin Bereziartua ARRASATE

Egun 1.600 bazkide inguru dituen Besaide Mendizale Elkarteari ez zaio lanik falta. Hainbat dira esku artean dituzten proiektuak, eta datorren urterako egitasmo baten berri eman du Aitor Zubiaga presidenteak. Uztail hasieran Arrasateko Udalak Anporretako tontorreko lursaila erosi eta jabego publiko bihurtzeko akordioa lortu zela -32.263 metro koadroko lursaila 18.000 euroren truke itxi erosi zen- aprobetxatuta, Besaideren aspaldiko egitasmo bat martxan jartzeko atea ireki dira. "Arrasateko tontorrik esanguratsuenak modu duin baten eskuragarri jarri gura ditugu arrasatearren gozamenarako", dio Zubiagak.

Kurtzetxikiren arrakasta eredu

Azken urteetako arrakasta handienetako bat izan da Kurtzetxikiko tontorra publiko egin eta egokitzearena, hainbat herritarrek erabiltzen dute eta aisialdirako naturgune moduan. Besaidekoek bide horri heldu gura diote Iturritxipigainarekin, betiere Udalarekin elkarlanean. "Mendira goazenean ere ohitura handia dugu kotxea hartzeko; ibilbide berri horretan funtsez-

koa litzateke autorik ez hartzea, inguru eta leku pribilegiatuak ditugulako bertan".

Izan ere, Zubiagak nabarmendu duenez, Iturritxipigainerako ibilbideak hainbat altxor gordetzen ditu. Monterron parkea izango litzateke hasiera eta bukaera, Besaiderentzat "epizentro paregabea" dena. San Kristobal eta bertako ondarea, Lurgorriko meategi famatuak, bederatzi hektareako Hidaigobaso -Naturan indiak diagnostikoa egingo du etorkizuneko esku-hartzeetarako-, Anporreta eta haren anaia txikia den Iturritxipigaina... "Udalatx parez pare dagoe-la, ia 360 graduko ikuspegi zoragarria dago Iturritxipigainan. Erdi Aroko labeak ere agertu dira inguru horretan, beste sorpresa bat gehiago", dio Zubiagak. Herrira buelta Meatzerreka auzotik egingo luke ibilbideak eta beraz, PR berri hori Gipuzkoako Birarekin (GR-121) lotuko litzateke. Meatzerrekan ere badago zertaz gozatu: Urzulo, berreskuratzen diharduten San Balerioko atsedean lekua, iaz berreskuratutako Errege Bidea... Hiru ordura helduko ez den ibilbidea da, eta "seguruena" izango du alternatiba motzago bat.

"Interesgarria iruditzen zait"

Iturritxipigaina herriari bueltatzeko ekimenaren barruan dirua lortzeko asmoz antolatutako zozketa Ander Etxeberria arrasatearrak irabazi du (1.466): "Oso interesgarria iruditzen zait, ekimenaren berri izan nuenean pentsatu nuen txartela erosi egin behar nuela, eta begira, tokatu egin zait. Primerako saria da. Lan handia ari dira egiten eta babesa merezi zuten". Ternua markako motxila bat, barruko termikoa, kotoizko jertse bi, haizetik babesteko txaketa, Termina kamiseta bi eta *Ispo Awards* sariketa irabazi zuen txaketa eraman ditu Etxeberriak sari moduan. "Eskerrik beroenak erosle guztiei eta bereziki Ternuari, beti daude eta Besaide Mendizale Elkarteari elkarlanerako gertu", diote antolatzaileek.

Igerilekuko kloroa murrizteko sistema berria

Umeei kalte egiten dienez bereziki, txikiko urak desinfektatuko dira izpi ultramoreen bitartez

Ibon Carmona ARRASATE

Arrasateko Musakolako kiroldegiko barruko igerileku txikiko urak desinfektatzeko ultramore izpi sistema duen aparatu berri bat jarri du Kirol Zerbitzuak. Izpi ultramoreak botatzen dituen lanpara bati esker igerilekuko uretan eta giroan dagoen kloro konbinatua %90 murriztuko da. Udaleko Kirol Zerbitzuaren arabera, teknologia ekologikoa da eta errendimendu eta efikazia hobekuntza nabarmena ekarriko du ur garbiketa aparatuen funtzionamenduan.

Lehenengo, igerileku txikian

Izpi ultramoreekin egindako ur tratamendua metodo berria da, prozesu fisiko baten bitartez uraren desinfekzioa lortzen duena, inongo produktu kimikorik gabe. Hasiera baten, igerileku txikian erabiliko da, eta, ematen dituen emaitzen arabera, igerileku handiko ura desinfektatzea ere aztertuko da.

Kirol Zerbitzutik aditzera eman dutenez, gaur egun igerilekue-tako kloroaren erabilera ezbaian dago. Ikerketa batzuen arabera, igerilekuak erabiltzen dituzten umeek alergiak edo asma sufritzeko bost aldiz aukera gehiago dituzte.

Egitarau bereziarekin dator gaur ospatuko den Gau Eguna

Txatxilpurdi elkarteak antolatzen duen egun berezia kalejira batekin hasiko da (17:30); Portaloitik plazara egingo dute, Ilargitxorekin batera. Ondoren, haur eta familientzako ipuin kontaketa mitologiko bat egingo da plazan bertan (18:00), eta 18:30ean gazteei zuzenduriko *Sua* karta jolasaren partida erraldoia hasiko dute.



NIRE USTEZ

IBON
ARRUPE

Gora, Baskonia!

Euskarazko bertsioaren telebistaratzea hasita zegoela deskubritu nuen *Baskoniako Historia* Bat programa, eta, horrelako aurkikuntza egin ondoren, egun gutxitan, Interneten, galdutako atal guztiak irentsi nituen arrapaladan. Oraindik txundituta nago. Liluratuta. Haluzinatuta. Flipatuta.

BBCk burututako erreportaje bat dela badirudi ere, geure telebistak, EITBk, egindakoa da. Programan azaleratutako ikerketen emaitzek gure historiari eman dioten buelta, zentzua eta argia, sinesgaitzak dira. Historian zehar gertatutako gorabehera guztien ginetik, euskaldunok baskoiak garela ondorioztatu daiteke.

Ez bardulok eta ezta karistiarrek ere, baskoiak baizik. Pirinioetako mendilerroaren erdialdetik gatozen baskoiak. Eta egiaztapen honek, behin betiko, *Zazpiak bat* lema guztiz borobiltzen du. Arabar, gipuzkoar, bizkaitar, nafar, lapurtar edo zuberotarrak izatearen ginetik, denok euskaldun! Denok baskoi! Zorionak, EITB!

ARRASATE IRRATIA

Kooltur eta 'Vuelos'

Kooltur Ostegunak-en barruan azaroaren 10ean InorenEroNi taldeak eskainiko duen kontzerturako (gaztetxean, 22:00etan) eta Aracaladanza dantza taldeak azaroaren 12an Amaia antzokian (18:00) eskainiko duen *Vuelos* ikuskizunerako sarrerak zozketatzen dira. Zozketan parte hartzeko: 943 25 05 05 telefono zenbakira deitu edo *irratia@goiena.eus* helbidera idatzi.



Udaleko eta ikastetxeetako ordezkariak, ekimenaren aurkezpenean. IMANOL BELOKI

Herrian umeen parte hartzea bultzatu nahian

Arrasateko Udalak, herriko ikastetxeekin lankidetzan, Umeen Kontseilua osatuko du, herrian bultzatuko diren proiektuen eta ekimenen gainean umeek euren ikuspuntua azaltzeko aukera emango duena. Hilabete honetan eratuko dute lantaldea

I.B./M.T. ARRASATE

Umeen Kontseilua eratuko dute Arrasaten hilabete honetan, azaroan. Umeen parte hartzea bultzatu nahi duen ekimen bat da. "Helburua litzateke umei ere hitza ematea iritziak emateko eta herriaren inguruan iradokizunak egiteko", azaldu du Maria Ubarretxena alkatea.

Udalak eta herriko ikastetxeak elkarlanean jardungo dute kontseilu honen bueltan.

Kontseilua alkatetzatik bideratuko da, bertatik bideratuko dituzte gaiak, eta haurrek aholkuak emango dituzte. Hilero, kontseilua osatzen duten haurrak, klasetik kanpo, gaztegunera, ludotekara... elkartuko

diren gunetara joango dira, eta lanketa horretan parte-hartze eskola bat eratuko dute.

Ikastetxeak, "pozik"

Arrasateko ikastetxe desberdinetako ordezkariak "ekimen aberasgarria" dela uste dute. Hala, Arizmendiko zuzendari Iñaki Etxezarretak dio "pozte-

koa" dela gizartean umeen parte hartzearekiko "gero eta "keza eta kontzientzia handiagoa" egotea. Hala, ekimen berri hau positiboa iruditzen zaio, "umeek eskolaz kanpo ere herri espazioetan beraien lekua izan dezaten".

Herri eskolako ordezkari Beñardo Balerdi ere bat etorri da Etxezarretarekin: "Arrasateko umeen ekarpena jasotzea eta kontuan hartzea oso erakargarria da, eta pentsatzen dugu oso aberasgarria izango dela".

Funtzionamendua

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek hartuko dute parte, 600 ikasle inguruk. Hala, kontseilua bi urtetik behin aldatzen joango da.

Kontseiluko kide izan nahi duten umeek izena eman beharko dute, eta zozketak egingo dira ordezkariak zeintzuk izango diren erabakitzean.

Blanca Jauregi gazteria teknikariak dio umeen ekarpenak kontuan izatea "oso inportantea" eta "interesgarria" dela.

'Haurren hiria' liburua oinarri

Ekimenaren bultzatzaileak Francesco Tonucci filosofo italiarraren *Haurren Hiria* liburuan oinarritu dira Umeen Kontseilua martxan jartzeko.

Tonuccik dio eraiki ditugun herriak helduen bizimodura egokituta daudela, eta ez ditugula umeen beharrak entzuten. Horregatik, guztiontzako herriak pentsatzeko orduan "filosofia berri bat" aplikatu beharra azpimarratzen du, zeinetan umeak "parametro gisa" hartu behar diren herritar guztien beharrak asetzeko.

Hain zuzen, liburu horretan hainbat ekintza proposatzen ditu filosofoak; tartean, Umeen Kontseilua. Mota honetako lehen esperientzia Erroman izan zen, 2001. urtean. Tonuccik umeen parte hartze modurik "aberatsenetarikoa" eta "esanguratsuenetikoa" irizten dio haurren kontseiluari.



Tonucciren liburua. GOIENA

Arrasateko iragana astintzeko bosgarren hitzaldi zikloa dator

Arrasate Zientzia Elkartearen eskutik, saio interesgarriak azaroaren 8an, 15ean eta 29an Kulturaten (19:00)

Jokin Bereziartua ARRASATE

Arrasateko Iragana Astintzen hitzaldi zikloaren bosgarren edizioa aurkeztu du asteon Arrasate Zientzia Elkartek. Arrasateko Elizateak, Vasco-Navarro trena eta Pedro Bernardo Villareal de Berriz Andikano izango dira protagonista hilaren 8ko, 15eko eta 29ko saioetan, hurrenez hurren. Hitzaldiak Kulturateko areto nagusian izango dira, 19:00etan. Azaroaren 22koa ziurtatzeko dute oraindik; antolatzailleek aitortu dute geroago eta zailagoa zaiela maila akademiko



Barrutiabengoa eta Bengoa. J.B.

altuko adituak ekartzea eta horregatik aldaketak aurreikusten dituzte datorren urterako. "Ikusten dugu ekimena agortzeaz dagoela, zaila dela halako gaiak halako maila duen jendearekin lantzeko aukera izaten jarraitzea. Gaiak ere agortzeaz dira; iaz zailtasunak igarri genituen baina aurtengoa kalkulaezina izan da. Zenbat ordu pasatuko genituen telefonoz harremanak egin nahian...", adierazi du AZEko kide Xabier Bengoak.

Lehen saioan, Josu Etxezagarra arkeologoak Arrasateko Elizateak izango ditu berbagai. "Etxezarragak frogatu nahi du da ermitak horren arraroak diren lekuetan eraiki aurretik, bertan populazio bat egon zela. Bere doktore-tesiaren gaia da", adierazi du AZEko kide Jose Angel Barrutiabengoak.

36ko gerran fusilatutako 39 arrasatear omenduko dituzte

Hernaniko hilerrian egingo dute omenaldia bihar (12:00); Arrasateko Udaleko ordezkariak batek hartuko du parte

J.B. ARRASATE

Aurten 80 urte bete dira tropa frankistak Gipuzkoako hainbat udalerrri armekin hartu zituztenetik. Orduko dokumentuetan jasotzen denez, 1936 eta 1939 urteen bitartean 3.000 pertsona inguru fusilatu zituzten Gipuzkoan, horietako asko Hernanin. Ondoren, Hernaniko hilerrian lurperatuak izan ziren.

"Egia ezagutzera ematea"

Gaur egun, 3.000 biktima horien artean 300 lagun inguru identifikatzea lortu da eta tartean 39

arrasatear daude. Horregatik, Arrasateko Udaleko ordezkariak batek ere hartuko du parte omenaldian, Maria Ubarretxena alkatea tartean. Izan ere Udalak "ezinbestekotzat" jotzen du Espainiako Gerran eta Errepublikaren garaian herriak eta bereziki herritarrek pairatutakoa berreskuratzea, garaiko gertakarien egia gizarteratu, islatu eta ezagutzera emateko.

Hernaniko Udalak antolatuko du omenaldia, "egia osoa ezagutu eta justizia aldarrikatzeko" helburuarekin.

Elite mailako ziklista onenak Markuleten

Asteburuan hitzordu bikoitza izango da: zapatuan Arrasateko lasterketa egingo dute eta domekan Karrantzakoa. Azken hori Espainiako Koparako puntuagarria denez, horrek kanpoko ziklistak erakarriko ditu baita Arrasatera ere

Xabier Urzelai BERGARA

Joan den asteburuan Espainiako Kopako lehen bi proba puntuagarriak jokatu zituzten Legazpin eta Muskizen, eta domekan Karrantzak hartuko du erreleboa. Tartean, baina, Gipuzkoako Txapelketa egongo da jokoan, bihar, zapatua, Arrasaten, eta horrek esan gura du euskal ziklista onenak batzuekin batera kanpotar asko gerturako direla.

Iaz, Arrasateko lasterketarekin batera Valentzian Espainiako Txapelketa egon zen jokoan, eta han egon ziren onenak. Hala, Diez Arriolak erakustaldia eman zuen Markuleten, kantabriarrak ez zuen-eta kontrariorik izan. Bihar, baina, oilar gehientsuenak izango dira Arrasateko irteera puntuan.

Gaztetxoak animatzeko

Kadete eta gazte mailetakoen lasterketen artean (10:30) Arrasateko eta inguruko gaztetxoek ziklo-krosa probatu ahal izango dute: "Kategoria ezberdinak antolatuko ditugu, izen-ematea jarriko dugu, eta, nork bere bizikleta ekarrita, gazteak zirkuitura sartu ahal izango dira eta itzuli batzuk egin, erakustaldi modura", adierazi zuen Junkal Perezek: "Zaletasuna sustatzeko modua da".



lazko irabazle Jose Antonio Diez Arriola ahalegin betean. ASIER ATXA

"Elite mailan lehia polita izango da"

ZIGOR URAIN ANTOLATZAILEA

Iaz lasterketa sikuian egin ahal izan zuten; biharko ez dute eguraldi iragarpen ona eman. **Zer duzu gurago, sikuian ala lokatz artean ibili?** Antolatzaile moduan, gurago dut euririk egiten ez badu, lasterketa errazago antolatzen delako.

Eta ziklista moduan galdetzen badizut?

Hor ere nahiago siku eusten badio. [Barre] Lokatz artean nahiko ondo moldatzen naiz, ez dut arazorik; lasterketa ostean bi bizikletak ondo garbitu behar dira, eta lana ematen du horrek.



X.U.

Iaz baino oilar gehiago batuko da aurtan.

Bai; Belgikan lehian ibili diren ziklistak dagoeneko hemen daude, joan den astean Espainiako Kopako probak egon zirelako jokoan, eta bihar ere hemen izango dira asko. Aitor Hernandezek eta Larrinagak, esaterako, baieztatu digute Markuleteko irteera puntuan izango direla **ikusleak gerturatuko dira aurtan ere.**

Iaz oso pozik geratu ginen, jende asko etorri zen eta. Aurtan ere txosna jarriko dugu, giro ona egongo da.

Blanca Martinezen eta Montse Roldanen margolanak Kajoin

22 koadroz osatutako erakusketa egin dute elkarlanean eta azaroaren 14ra arte egongo da ikusteko aukera

Xabi Gorostidi ARRASATE

Monterron jauregiko pintura tailerretan hasitako margolariak dira Blanca Martinez eta Montse Roldan, eta ordutik hona garatutako trebeziak islatu dituzte Kajoi tabernan egindako erakusketan. "Askotan margo erakusketak egiten zituztela ikusita, gu biok hurbildu ginen Kajoi tabernako arduradunengana. Baiezkoa eman ziguten eta erraztasun ugari eman dizkigute erakusketa antolatzeko orduan", adierazi du Blanca Martinezek.



Martinez eta Roldan. MIREIA BIKUÑA

Azken urte eta erdiko uzta

Erakusketa azken urte eta erdian egindako 22 koadrok osatzen dute; 10 Roldanenak eta 12 Martinezenak.

"Uste dut ikusleak Montseren eta nire koadroak ezberdindu ditzakeela, Montserenak abs-

traktuagoak direlako. Nire koadroak figuratiboagoak izan daitezke, baina azkenaldian nire estiloa aldatzen ari naiz eta abstrakziorantz jotzen dut gero eta gehiago".

'Aingeru ala Kurriloi?' antzerkia bigarren izugai Arrasaten

Domekan, Doke Antzerki taldekoek *Aingeru ala Kurriloi?* antzezlan bigarren aldiz taularatu dute Arrasaten. Amaia antzokian izango da, 19:30ean, eta sarrerak salgai daude Arrasateko Udalaren webgunean. Egunean bertan, antzokiko leihatilan ere eskuratu ahal izango dira, 10 euroren truke.

Ekainaren 19an antzeztu zuten Arrasaten lehen aldiz, aurretik Aramaion eta Aretxabaleta taularatu ondoren. Domekako saioaz gain, azaroan beste bi emanaldi egingo dituzte: 20an Eskoriatzan eta 26an Abadiñon. Etorkizuneko proiektuei buruz galdetuta, zera adierazi du taldeko kide Mariasun Pagoagak: "2018an urteurren garrantzitsu bat dago eta horri buruzko lan bat prestatzen ari gara musikari eta abesbatzekin elkarlanean".

'La del soto del parral' zarzuelarako sarrerak salgai

Gaur jarri dira salgai Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak prestatutako *La del soto del parral* zarzuelarako sarrerak. Arrasate Udalaren webgunean eskuratu daitezke, 18 euroren truke.

Tere Gonzalezek zuzentzen duen taldeak lau emanaldi egingo ditu Arrasateko Amaia an-

tzokian: azaroaren 19an, 20an, 25ean eta 26ean, hain zuzen.

XIX. mendean Segovian giratutako landa-drama bat da. "Ahotsendako, bereziki, partiturak oso zailak ditu, eta, alde horretatik, opera batekin antzekotasun handiak dituela esan daiteke", azaldu du Gonzalezek.

Arrasateko talde lirikoak bere ibilbidean zehar prestatu duen hamazazpigarren lana da *La del soto del parral*.

Ordutegiak

- 09:00etan masterrak (30, 40, 50 eta 60 urte bitartekoak).
- 10:00etan kadeteak, gizonezkoak eta emakumezkoak.
- 11:00etan gazteak, elite emakumezkoak eta 23 urtez azpikoak.
- 12:00etan eliteak eta 23 urtez azpikoak.
- 13:15ean sari banaketa.



Aramaioko udal ordezkariak bat egin zuten osoko bilkuran Gureia auzoko lanak ahalik eta azkarren esleitzeko. XABI GOROSTIDI

Gureia auzoko lanak esleitzeko bidean

Pasa den asteko osoko bilkuran onartu zuten obrak esleitzeko espedienteari hasiera ematea. Horretaz gain, terrazak arautzeko ordenantza behin-behinekoz onartu zuten eta EAJk Lurgorriren plakari buruz egindako proposamenak ez zuen aurrera egin

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Pasa den urriaren 27an egin zuten Aramaioko udal ordezkariak urriko osoko bilkura. Eguneko gai nagusiak Gureia auzoko konponketa lanak, terrazak arautzeko ordenantzaren behin-behineko onarpena eta EAJk Lurgorri kaleko plakaren inguruan egindako proposamena izan ziren.

Iraileko osoko bilkurako akta onartzeaz bat, alkatetza ebazpen berri eman zuen Lierni Altunak. Bi puntu hauek inongo arazorik gabe onartu ziren. Jarraian, Gureia auzoko euri urak bereizten dituen saneamendu sarea, elektrizitate, kale argiteria eta telefono kanalizazioak eta zoladura proiektua jarri zuten mahai gainean.

Lehenik eta behin, proiektua eta honen zuzendaritza daraman LKS enpresak lanen kostuan egindako birdoitzea onartu zuten. Hala, lanen kostua 493.671,47 eurotik 491.218,00 eurora jaitsiko da. Horrez gain, obra kon-

tratua esleitzeko espedientearen hasiera ematea onartu zuten, eta gaur kaleratutako buletinean azaroaren 17ra arte ematen zaie enpresei euren aurrekontua aurkezteko epea.

Terrazen ordenantza onartuta

Jarraian, terrazaren ordenantzaren hasierako onarpena egin zuten. Alor fiskalean kuota ezberdinak jarri dituzte herriko taberneak dituzten mahai eta terraza mota bakoitzeko. "Gaur egungo errealitatea asko aldatu da, eta alor fiskalean islatzea nahi genuen. Terraza eta mahai tamaina ezberdinak daude, eta horren arabera prezio ezberdinak ezarri ditugu", adierazi zuen Lierni Altuna alkateak.

AZAROAREN 17RA ARTE IZANGO DUTE ENPRESEK EUREN AURREKONTUAK AURKEZTEKO EPEA

Behin-behineko onarpenaren ondoren Arabako Lurraldeko Historikoko Aldizkari Ofizialean publikatuko da eta alegazioak aurkezteko epea egongo da.

Eztabaida Lurgorriren plakarekin

Ondoren etorri zen osoko bilkuran onartu ez zen gai bakarra. Urriaren 29an 100 urte bete ziren Lurgorri abertzalea jaio zela. Horren harira, Aramaion bere omenez jarritako kalean zegoen plaka berria jartzea adostu zuten bi alderdiek, aurretik zegoena jausi egiten zelako eta ez zuelako Lurgorri nor izan zen ondo islatzen. Lierni Altunak testu bat proposatu zuen, baina EAJko udal taldeak testu hori "aseptikoezia" zela eta euren testu propioa jartzeko proposamena eraman zuen osoko bilkurara.

Bi alderdiek euren testuen defentsa egin ostean bozkatzeko ordua heldu zen. EH Bilduko sei ordezkariak aurka bozkatu zuten, eta EAJren proposamenak ez zuen aurrera egin.

Heldu da Iker Agirreren eta Peru Abarrategiren txanda

Asteburu honetan jokatuko dituzte 2017ko Arabako Bertsolari Txapelketan lehiatzeko kanporaketak

Xabi Gorostidi ARAMAIO

2017ko otsailean hasiko den Arabako Bertsolari Txapelketan sartzen ahaleginduko dira asteburu honetan Iker Agirre eta Peru Abarrategi. Gaur, egubakoitza, izango da Agirreren kanporaketa. Saioa Izarran izango da, 20:00etan, eta aurkari izango ditu Ander Solozabal, Xabier Antia, Unai Gomez, Alberto Martinez *Beito* eta Irati Ruiz de Pinedo.

Peru Abarrategiren kanporaketa zapatuan jokatuko da Araian. Jon Sanchez, Oier Ar-

bina, Rikardo Gonzalez De Durana, Izar Mendiguren eta Jagoba Apaolaza izango ditu aurkari bertsolari gazteak.

Andere Arriolabengoa sailkatuta

Pasa den zapatuan Lantziegon jokaturako kanporaketan Andere Arriolabengoa eta Paula Amilburu aramaiokarrak aritu ziren, eta fin aritu ere. Arriolabengoa garaile izan zen 176,5 punturekin eta Amilburu, aldiz, bigarren, 163,5rekin. Lehen postuari esker zuzenean sailkatzea lortu du Arriolabengoak.



ARAMAIOKO UDALA

Herriko adindunenei omenaldia

Jubilatuak Egunean Aramaioko Udalak herriko bi pertsona adindunenak omendu zituen, zapatuan. Azken urteetan bezala, Altzagako Maria Angeles Beitiak (98 urte) eta Eguzkierripako Balentin Ibabek (98 urte) Lierni Altuna alkatearen eta Cristina Etxenhausia Kultura zinegotziaren bisita jaso zuten. Zorionak bie!

Pertsona maitatuen heriotza gainditzen laguntzeko hitzaldia

Gaur, egubakoitza, Alaiak Jubilatuen Elkartek antolatuta hitzaldia egongo da 18:30ean Kultur Etxean. Bertan, Patxi Izagirre psikologo klinikoak lagunen edo familiakoa kideen heriotzak gainditzen laguntzeko hitzaldia emango du.

Hainbat gako emango ditu era horretako egoera deserosoei aurre egiten laguntzeko.

Lurgorri buruzko hitzaldia azaroaren 9an Kultur Etxean

Urriaren 29an Lurgorri abertzalea jaio zela 100 urte bete ondoren, Aramaioko Udalak hitzaldia antolatu du azaroaren 9rako. 18:30ean izango da Kultur Etxean.

Hasteko, Jose Mari Velez de Mendizabalek Lurgorriren biografia azalduko du eta ondoren Joseba Azkarragak haren ekarpen politiko eta sozialak izango ditu hizpide.

Auzoko-ra gerturatzeko gonbidapena herritarrei

Auzokoak dokumentala emango dute martitzenean, azaroaren 8an, Arkupeko bigarren solairuan, 18:30ean; auzokideen eta auzotarren bizipenak ezagutzera ematea du helburu Euskaltzaleen Topaguneak egindako filmak

Goiena komunitatea

Auzoko egitasmoa / ARETXABALETA

Datorren azaroaren 8an, martitzena, 18:30ean, *Auzokoak* (Iñaki Alforja, 36 min.) dokumentala eskainiko da Arkupe kultura etxeko bigarren solairuan. Auzoko egitasmoan parte hartzen duten auzokideen eta auzotarren bizipenak kontatzen dituen dokumentala da; horregatik, aukera bikaina dugu gurer a etorri diren horien esperientziak gertutik jarraitzeko, eta dokumental horren bueltan elkar ezagutzeko.

Aretxabaletarrei gonbidapena

Badira urtetxo batzuk Auzoko egitasmoa martxan jarri zena Aretxabaletan, Debagoieneko beste hainbat herritan lez, eta horren bueltan auzotarrak (euskaraz bizi den jendea) eta auzokideak (euskaratik urrun bizi den jendea, hau da, ez dakiena) elkartzeko dira. Modu dinamikoan euskarara hurbiltzea eta harrera linguistikoa gauzatzea da helburua; izan ere, euskararentzat aniztasuna ez da mehatxua.

Proiektu hori auzokideei begira antolatutakoa da; horiek euskarara gerturatu nahi dute badakitelako herritarrengana gerturatzeko bidea dela. Baina



Auzoko egitasmoko hainbat emakume maiatzeko Euskeriaren Egunean. MIRARI ALTUBE

auzotarrak ere behar-beharrezkoak dira. Horregatik, euskaraz bizi den Aretxabaleako edozein herritar gonbidatu nahi dugu auzotar bezala parte hartzera; hala, harremanak estutzeko

**AUZOTARRAK
BEHARREZKOAK DIRA
EUSKARAZ
JARDUTEKO ETA
EKARPENAK EGITEKO**

beste herritar batzuekin eta ekarpenak egin ditzaten.

Bi talde abian

Ikasturtea dagoeneko abian da eta bi talde eratu dira: bata astelehenetan elkartzen da 15:00etatik 16:00etara; eta bestea, martizenetan 11:00etatik 12:00etara. Era berean, gogorazi nahi dugu euskararekin harremanik ez duen edonorendako dituztela ateak zabalik taldeek.



ARFAN SARWAR
AUZOKIDEA

"Aretxabaletan hiru urte daramatzat eta Auzoko taldean urtebete. Euskara gustuko dut eta ikasi nahi dut Euskal Herrian bizi naizelako. Pozik nator taldera, berbak ikasten ditugu, dendetara eta liburutegira joaten gara eta egun bereziak ere egiten ditugu. Jende asko ezagutu dut herrian eta nirekin oso jatorrak dira".



NEREA ZUBILLAGA
AUZOKOKO DINAMIZATZAILEA

"Jendearengana gerturatzeko euskara ezinbestekoa dela antzeman dute eta horregatik datoz taldera. Giro polita daukagu eta oso gustura etortzen direla uste dut. Era berean, ikasteko eta herriko jendea ezagutzeko gogoz daude, harremanak estutu gura dituzte eta horretarako aukeren bila dabilta. Horregatik, garrantzitsua da herritarrak ere gerturatzeko".



NIRE USTEZ

AINHIZE
BARRAINKUA

Izan edo ez izan

Emakume jaiotzeagatik, garaian garaiko moralgileek eraikitako gizarte patriarkalaren biktima izan gara asko. Adibide grafikoenetan erraza zaigu zapalkuntza salatzea. Esaterako, frankismoan, emakumea menpeko subjektu ezdeustzat zeukaten. Hala ere, arrotzegia zaigu maiz errealitate hori, aspaldikoa ez den arren. Itxuraz, guztiz ezberdina den egunerokotasun bat bizi duen belaunaldi bat garelako, agian. Baina sakonean, eraberritu al da gure gizartearen dinamikaren funtsa?

Egunotan gertuko zaidan esparruan, unibertsitatean, zientzien alorrean, emakumeen egoerak ez du askorik parekidetasunetik. Aurkikuntza edo aurrerapen zientifiko bat mintzagai duten konferentzietan, nekez aurki daitezke. Ikerkuntza taldeetan ere, generoen arteko desoreka itsugarria zait. Ibilbide profesionalak zailtasunez betetzen dizkiete, gutxietsiak dira maiz.

Bada beste kausa bat, arriskutsuagoa agian, isilpekoa izanagatik: emakumeei zientzia arloan jarduteko gaitasunik ez dutela sinetsarazi izana.

Honen guztionen aurrean, doakie nire miresmen osoa oztopo guztien gainetik beren aztarna utzi dutenei, parekidetasunaren alde borrokan dabilzane, ameslari, ekintzailei.

ARETXARGI

aretxargi@aretxargi.com

BELOORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

☎ 943 532 628 📞 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK





Neska-mutikoak eta gurasoak Muruko tontorrean, urriaren 16an. GURASO FOROA

Umeak eta gurasoak, mendian gozatzera

Guraso Foroak eta Murukixoko mendizale elkarteak iaz abian jarritako egitasmoari jarraipena emango diote, eta domekan, Asentzio eta San Adrian artean dagoen Ganboralde muinora joango dira 10:00etan irienda Herriko Plazatik

Mirari Altube ARETXABALETA

Mendizaletasuna bultzatzea helburu nagusia izanik, mendi irteerak antolatzen jarraituko dute aurten ere Guraso Foroak eta Murukixok 5 eta 12 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako. Urrian egin zuten lehenengoa, Murura, eta oraingo domekan Ganboraldera doaz, Asentzio eta San Adrian artean dagoen muinora. 10:00etan el-

kartuko dira plazan eta Untzillara igoko dira autoetan; handik Kruzetara doan GR-121 hartu eta Ganboralderaino joko dute; hamarretakoa han bertan edo San Adrianen egingo dute, eguraldiaren arabera: "Ez dauka inolako zailtasunik eta mendi ezezaguna, ermita polita eta metal-ur iturri ederra ezagutzeko aukera izango dugu", jakinarazi du Oier Etxebarriak.

Ikastetxeetako guraso elkarteek, Kuku Mikuk eta Udalak osatutako Guraso Foroak iaz abian jarritako egitasmoak gogotsu ekin dio ikasturteari. 30en bat neska-mutiko eta beste horrenbeste guraso elkartu ziren Murun: "Eguraldia ederra izan zen eta gorako bidea gehienek denbora luzean gogoratuko dute: kosta egin zitzaigun, baina abentura polita izan zen", dio Etxebarriak.



OIER ETXEBARRIA MURRUKIXO MENDIZALE ELKARTEA

"Iazko irteerak egin genituen bide eta toki bereziak ezagutzeko asmoz, baina mendiak igotzeko grina berezirik gabe. Eguraldiarekin ez genuen zorterik izan eta gehienetan jende gutxi bildu ginen. Dena den, irteera guztietan gozatu ahal izan genuen gure inguruen xarmaz eta edertasunaz eta lagunartez".



NEREA ALTUNA ARIZMENDI IKASTOLAKO GURASOA

"Gustuko dugu mendira joatea eta nahiz eta geure aldetik joan gaitzekin interesgarria iruditzen zaigu beste familia batzuekin joatea. Eskola desberdinetako haurrak elkartzen dira, naturan, beraien herria hobeto ezagutzen dute, gurasoekin batera... Arrazoi asko daude irteerotara animatzeko".



IDURRE URIBARREN KURTZEBARRI ESKOLAKO GURASOA

"Mendirako ohitura hartzeko asmoz hainbat irteeratan izan ginen iaz, eta aurten ere badugu asmoa, eguraldiak laguntzen badu behintzat. Umeak oso gustura datoz, nagusien lagunekin joaten da, eta goiz pasa polita egiteko aukera eskaintzen digu, aurten, gainera, domeketan".

Txarapeara igotzeko eskailerak egiteko lanak hastear dira

Hormigoizkoak izango dira, baina egur itxurarekin; Sasoi eraikuntza enpresak egingo ditu bost astetan

M.A. ARETXABALETA

Andramari auzotik -Deba ibaia- ren beste aldetik -Txarapea ibilbidea- igo ahal izateko eskaile- rak egingo ditu Udalak. Bizila- gunek bidezidorra dute eginda zelaian, baina laster behar be- zalako igoera izango da.

Lanon kostua 50.706 euro da eta Sasoi Eraikuntzak enpresak egingo ditu. Hormigoizkoa izan- go da, baina egur itxura duena: "Almendik Eskoriatzarantz da- goen bidegorriaren antzeko di- seinua izango du zoruak, eta egurrezko eskudela jarriko dio- te", jakinarazi du Unai Elkorok alkateak.

Eliza alboko espaloia

Bestetik, eliza albotik Lausitta- ra doan espaloia zabaldu egingo dute bi metro izan arte: "Gurpil aulkidunen zirkulazio itzela dago gunen horretan eta espaloia



Txarapeara doan bidezidorra. M. ALTUBE

eskasa da", dio Elkorok, eta gai- neratu du: "Zubiko eskudela berrietako da eta zebra-bidea zubi osterara mugitu ibaiaren al- boko bideari jarraipena emate- ko". 62.414 euroko kostua duten lan horiek ere Sasoi Eraikuntzak egingo ditu.

Oinarrizko dantza ikastaroa eta hika eskolak azaroan

Ikastaro bi egingo ditu Lora- mendi elkarteak datozen aste- otan; batetik, hasiberrienda- ko fandango eta arin-arin ikas- taroa dago. Aiora Filarmendi aretxabaletarrak gidatuko du, eta eguenetan izango dira es- kolak, 19:00etan, udaletxe zaha- rrean. Hona hemen egunak: 8, 15, 22 eta 29. Bazkideendako debalde da eta gainerakoek,

berriz, 5 euro ordaindu behar- ko dute.

Bestetik, hika ikastaroa egingo dute Leintz euskaltegiko irakas- leen eskutik. Hika berba egitera animatzeko oinarrizko saioak izango dira. Hona hemen egunak: 16, 23, 30 eta abenduak 14. 18:30ean dira eskolak, udaletxe zaharrean. Bazkideek 10 euro ordaindu behar- ko dute, eta gainontzekoek 15 euro. Izena emateko epea zabalik dago bietarako; hona hemen bi- deak: loramendielkartea@gmail.com edo 685 75 67 29.

Marrazki lehiaketa deitu du liburutegiak irakur punturako

Udal liburutegiko irakur pun- tuko marrazkia aukeratzeko lehiaketa deitu dute. 12 eta 16 urte arteko gaztetxoek har de- zakete parte eta saria e-book bat izango da. 20 zentimetroko al- tuera eta 5,5 zentimetroko za- balera izan behar ditu marraz- kiak, eta lelo bat. Udal liburu- tegira eraman behar dira lanak azaroaren 28a baino lehen.

'Zapatila gorridun mutikoa' antzezlanaren eguzten goizean

Ados Teatroak *Zapatila gorri- dun mutikoa* antzezlanaren eska- iniko die Haur Hezkuntzako neska-mutikoei datorren eguaz- tenean, azaroaren 9an, 10:00etan, Arkupen.

Sexu eta genero aniztasuna- rekiko errespetua eta tolerantzia sustatzea helburu duen ikuski- zuna da, testurik gabea eta dan- tzarekin osatua.



Domekan, frontoian batu ziren elkarte ezberdinetako ordezkariak ikuskizunaren azken prestaketak lantzeko. IMANOL SORIANO

'Beldurrei agur' ikuskizuna

Herriko elkarte eta norbanakoek elkarlanean egindako lana Mari Jose Pagaldai eskoriatzarra gogoratzeko antolatu da. Ekimena azaroaren 12an izango da, Manuel Muñoz kiroldegian, 22:00etan, eta sarrera doakoa da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Beldurrei agur ikuskizuna egingo dute Eskoriatzako kiroldegian herriko elkarte eta eragile kultural ezberdinek Mari Jose Pagaldai eskoriatzarra gogoratzeko. Azaroaren 12an 22:00etan izango da eta parte-hartzaileak hauek izango dira: Beheko Errota Musika Eskolako irakasle eta ikasleak, gimnasia erritmiko taldekoak, kenpo taldekoak, Burrunba Kelele batukada, tai txi taldekoak, dantzariak, abesbatza, norbanakoak...

Mari Jose Pagaldai eskoriatzarra 2016ko apirilaren 13an zendu zen, eta oso ezaguna zen herrian. Hainbat ekintza burutu zituen herrian, eta adierazgarriena *Herrixa Elkartuz* ikuskizuna izan zen, duela bi urte San Pedro jaien egitarauaren barruan egindakoa. Bertan, herriko taldeek elkarlanean egin-

dako lana taularatu zuten, ekin-tza ezberdinen fusioa nagusi izanda. Hala, bere lana ezagutarazteko eta jarraipena emateko antolatu dute ekimen hau.

Mari Jose Pagaldai gogoratzu

Lili Gonzalez Hondurastik etorritako eskoriatzarrak eraman du aurrera ekimena. Gonzalez Eskoriatzara etorri bezain pronto, harreman bikaina egin zuen Pagaldairekin, eta, berak transmititutako ideiak taularatu, ekimena martxan jartzea pentsatu zuen Gonzalezek.

"HARK EZ ZUEN OMENALDIRIK NAHI; HURA GOGORARAZTEKO ANTOLATU DUGU IKUSKIZUNA"

Izenburuak dioen moduan, beldurrak alde batera uzteko ikuskizuna izango da. "Dantzaria izan naiz bizitza guztian, baina Eskoriatzara etorri nintzenean utzi egin nuen. Mari Josek herriko elkarteak batuta egindako ekintzak kontatzen zizkidan, egin nahi zuena, bere pentsaerak... eta esan zidan, ni munduko pertsona izanik, lan horretan asko lagundu nezakeela. Hala, bere lanari jarraipena emateko eta modu batean ni ere herrian gehiago integratzeko ari naiz lan hau prestatzen", adierazi du Lili Gonzalezek.

Hala, herriari parte hartzearen garrantzia transmititu nahi zaio, omenaldia egin barik, Pagaldai eta bere lana gogoan izateko. "Mari Josek esaten zidan bera ez zegoenean *omenaldi* hitza ez erabiltzeko: 'Egin dezakezu zerbait gogoratzeko eta nire izena



I.B

"Beldurrak baztertzeko ikuskizuna"

LILI GONZALEZ
ANTOLATZAILEA

Pagaldaik eta Gonzalezek oso harreman ona izan zuten, eta hark irekitako bideari jarraipena emango dio Gonzalezek.

Zergatik ikuskizun hau?

Hark esaten zidan Eskoriatzan batura kulturala behar zela; eta bere pausoak jarraitzeko egingo dugu.

Nolako ikuskizuna izango da?

Isiltasun leunenetik gogorreneraino doana. Jendeak entzuteko zarata egin behar da? Hau adierazteko eta herria elkartzeko antolatu nahi izan dut.

agertu daiteke, baina nik nahi dudana da herrian alderdi kulturean lanean ari direnak elkartzea". Azalpen hau oinarri izanda eraman da lan hau aurrera, eta horren erreferente da Mari Jose Pagaldai ezagutu ez zuten askok ere parte hartuko dutela *Beldurrei agur* ikuskizuneari.

Batuz, elkar jarraituz

"Leunetik gogorrerako norabidea izango du ikuskizunak. Isilunetik zarataraino, herriak entzun dezan. Isilunea, indarra, ikusmena, entzumena, batura, zentzumenak... batuko ditugu nolabait". Bestalde, Araceli Telletxea Eskoriatzako musika eskolako irakasleak adierazi du: "Mari Josek beti esaten zuen beldurrak alde batera utzi behar direla, eta, nola ez, batez ere, ikuskizun bat egitean. Honen harira, umeekin lan egiteko garian, oso polita izan da. Parte hartuko duten hurrei beraien beldurrak zeintzuk diren galdetu diegu, eta oso ondo transmititu digute zeintzuk diren... Gainera, parte hartuko duten askok sekula ez zuten egingo ikuskizun hau, ez ziren inola ere oholtzara igoko, baina ikuskizunaren funtsaz bat eginez egitea erabaki dute".

Musika, dantzak, irakurketak... bakarka eta hauen arteko fusioak izango dira ikuskizuneari Mari Jose Pagaldai gogoratzeko, eta antolatzaileek bertara joateko gonbidapena egin nahi izan die herriar guztiei.

Pintxo lehiaketa lehen aldiz Eskoriatzan

Herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko antolatu dute ekimena. Pintxoak egiteko orduan, bertako produktuak, Eskoriatzakoak, erabili beharko dira eta osagaiak ere herrian erositakoak izan beharko dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak lehen pintxo lehiaketa antolatu du; azaroaren 10etik 13ra izango da. Batetik, herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko asmoz antolatu da ekimena, eta bestetik, pintxoak egiterakoan bertako produktuak erabiltzea izango da helburua. Guztira, lau tabernak eman dute izen lehiaketan: Akeitak, Urrestillak, Toki Alaik eta Nairak.

Taberna bakoitzak pintxo bakarra aurkeztu ahal izango du, eta, herritarrek bozkatzeko aukera izan dezaten, tabernetan eskuorri batzuk egongo dira; hala, herritarrek pintxoak dastatzen duenean, tabernariak zigilu bat jarri beharko dio eskuorrian, bere tabernari dagoen lekuan. Herritarren botoak balio izateko, gutxienez hiru pintxo ezberdin dastatu beharko ditu, eta, eskuorria bete ondoren, taberna parte hartzaileetan egongo diren kutxetan botoa uzteko aukera izango du.

Bertako produktuak

Eskoriatzan ekoiztutako produktu bat, gutxienez, erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Gai nontzeko osagaiak herriko dendetan erositako produktuak izango dira, eta osagaiak Esko-



Lehiaketako pintxoak. IBARRAUNDI

riatzan erositakoak direla egiaztatzeko fakturak aurkeztu beharko ditu parte hartzaileak. Pintxo irabazlea aukeratzeko, aintzat hartuko dira hainbat ezaugarri: aurkezpena, zaporea, erabilitako produktuak eta kopurua eta originaltasuna.

Irabazlea aukeratzeko botoak epaimahaiak eta herritarrek emango dituzte. Herritarren botoak zenbatu egingo dira eta boto gehien dituenari 12 puntu emango zaizkio, bigarrenari 10



eta hirugarrenari 8 puntu. Bestalde, epaimahaiak 12 puntu emango dizkio pintxo onenari, 10 puntu bigarrenari, 8 puntu hurrengoari...

Sari banaketa azaroaren 13an egingo da Herriko Plazan, 14:00tan, eta saria bakarria izango da, 300 eurokoa. 12.00etatik aurrera, aldiz, pintxoak probatzeko aukera izango da domekan, hilaren 13an, plazan. Bozkatzaren dutenen artean, tabernetan gastatzeko 30 euroko saria ere zozketatuko da.

Produktu fitosanitarioak erabiltzeko ikastaroa hastear

Kurtsoa egitea beharrezkoa da kantitate handiko eta konposizioz fuertekoak diren produktuak erabiltzeko

I.B ESKORIATZA

Anduaga Pentsuak-ek antolatuta, azaroaren 7tik 11ra bitartean GID enpresak produktu fitosanitarioen ikastaroa emango du, 15:00etatik 20:00etara bitartean, egunero, kultura etxean.

Gazteleraz emango den kurtsoarako 50 debagoiendarrek eman dute izena, eta, teorikoa izan arren, hiru orduko praktika ere izango dute. Hiru formatzaile ezberdinek emango dituzte saioak, eta moduluka emango

dituzte, plagak, gaixotasunak, eta abar azalduta. Gainera, beharrezkoa izango da kurtsoa ateratzea produktu fitosanitarioak erosi eta erabiltzeko. Anduaga Pentsuak-en Maialen Leteren esanetan: "Badaude hainbat produktu erabili ditzakezunak, baina produktu fitosanitarioek dituzten konposizioak askotan hobeak dira... Orain, legea aldatu egin da, eta fitosanitario kurtsoa aterata ez duenak ezin ditu halako produktuak erabili, eta guk ezin ditugu saldu".

LEINTZ GATZAGA

"Zaletasun moduan egiten dugu txakolina, etxekoentzat soilik"

ASIER UGARTE ETXEKO TXAKOLINA EGITEN DU

Dagoeneko badaramatza urte batzuk ekoizpen honekin

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Asier Ugarteren eta aitaren artean etxeko txakolina egin dute, aurtan laugarrenez, Gatzagan daukaten mahasti txiki bati etekina aterata.

Aita eta biok aritzen zarete, ezta?

Bai. Aita mahastia zaintzeaz arduratzen da, batez ere, nik lana dela-eta ezin izaten baitut. Beraz, ondorengo lana nik egiten dut, mahatsa batu eta txakolina egin.

Zein da txakolina egiteko prozesua?

Behin mahatsa batuta, etxean dolare bat daukagu eta bertan zapaltzen dugu. Ondoren, kupe- lera sartzen dugu, eta, egun pare bat itxaron ostean, kupel aldaketa egiten dugu, zikinak eta kendu ostean garbia bakarrik geratu dadin. Behin hori eginda, hazgarria botatzen diogu eta horrekin, dagoeneko, hartzidura prozesua hasten da.

Hori bukatzean, botilara?

Hala da. Hartzidura prozesua bukatzean, denboraldi bat uzten dugu kupelean, puntura heldu arte, eta ondoren, botiletan sartzen dugu txakolina. Botilan ere denbora apur bat uzten dugu, edan aurretik.

Autodidakta moduan ari zarete?

Bai. Oraindik ikasten ari gara eta batzuei zein besteei galde- tuta egiten dugu. Gainera, hemen daukagun arazo handiena da gure mahastia altu samar da- goela. Hotza eta hezetasuna de- la-eta ez dugu lortzen mahats kantitate handi bat; adibidez, Oñatin lortzen dutena edo.



Asier Ugarte. A.U.

Klimagatik da hori?

Ez dakigu ziur. Izan ere, mahastiari zenbait produktu bota behar izaten zaizkio eta ez dakigu horiekin asmatu izan dugun orain arte. Aurtan, Haroko mahastien produktuak banatzen dituen enpresa batekin harremanetan jarri gara eta zenbait aholku eman dizkigute. Baina berandu hasi gara aurtan eta honen emaitza ez dugu ikusiko. Ea datorren urtean zer moduz.

Kanpoan saltzeko asmorik bai?

Guretako, zaletasun bat da hau, etxekoentzat eta gertukoentzat soilik egiten dugu. Nire osaba bat mahastia jartzeko ideiarekin etorri zen eta beraren bitartez hasi ginen, baina beste barik. Gainera, gehien egin dugun urtean ere, 100 litro inguru atera zaizkigu; beraz, ez du askoz gehiagorako ematen. Sagardoa ere zaletasunagatik egiten dugu.

Lazkano-Zuazua arrasatearrak nagusi Beteranoen finalean

Pasa den zapatuan jokatu zituzten Beteranoen Txapelketako finalak, lehenengo zein bigarren mailetakoa.

Lehenengoan, Lazkanok eta Zuazuak –Kortaren ordezkariak– jokatutako azken honen irabazitzaileak izan zuten –22-14–. Bigarrenetan, ber- rriz, Beraza-Etxebarria bikotea gailendu zen, partidua lehiatua jokatuta –22-20–.

Irekita dago frontoi azpiko aparkalekuak esleitzeko epea

Urriaren 8ra arte egongo da aukera motordun ibilgailuen- dako aparkaleku erreserbatuen kontzesioak esleitzeko lehiaketa izena emateko

Marratzutako aparkalekuak erabiltzeko eskubidea emango du kontzesio honek, ondorengo bi urteetarako. Informazio gehi- go udaletxean eskuratu ahal izango da.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza, gaur hasita

Egitarau oparoa prestatu dute Udalak, Laboratorium museoak, Berelan foroak eta Miguel Altunak, bigarren jardunaldiotarako. "Entretenigarria eta aberasgarria" izango dela-eta parte hartzera dei egin die udal ordezkari Sabino Azkaratek herritarrei

Julen Iriondo BERGARA

Gaur bertan Elena Lete alkateak zabalduko dituen jardunaldiok asteburu honetan egingo den Wolfram Encounter deitu dutena dute nobedade nagusi: 28 orduko *e-sport* bideo joko txa-

pelketa izango da –Aranzadiko kirolgunean; aurrez izena emandakoek parte hartu ahal izango dute–. Baina txapelketaz gain, beste hainbat gauza ere antolatu dituzte: bihar, 11:00etan, *Hack-prende* erakusketa eta birzikla-

tutako materialekin robota egiteko tailerra –8 urtetik gorakoentzat; izena, aurrez–; 15:30ean, Lucas Rojo *e-sport* jokalaria profesionalaren hitzaldia; eta 18:00etan, Zorman *youtuber*-arena; domekan, berriz, 11:00etan, errealitate birtualaren gaineko hitzaldia izango da Asier Ruiz T-DEV aurkezlearen eskutik –denak Seminarioko karpan–.

Bestalde, eta astebururako antolatutakoak amaitzeko, bihar, 12:00etan, Juanelo Turrianok Toledon Tajo ibaitik ura igotzeko asmatutako mekanismoaren erreplika txikia aurkeztuko dute herritar batzuek Laboratorium museoan.

Egoitzetan aldi baterako egonaldia eska daiteke

Aldundiak abenduko zubirako eta Gabonetarako –abenduen 19tik urtarrilaren 9ra– egoitzetan aldi baterako egonaldiak eskatzeko datak finkatu ditu. Hala, abenduko zubirako eskatuta dutenek, azaroaren 14rako aurkeztu behar dute inprimakia, eta Gabonetarako eskatuta dutenek, berriz, azaroaren 23rako, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan.

Irakurketa foro feminista aurkeztuko dute Martxantere

Astelehenean izango da, gazte-tereko Angiolillo liburutegian, 19:00etan. Ondoren, lehen saioa hilaren 21ean egingo dute: aurrez irakurri eta Virginie Despentesen *Teoria King-Kong* liburua komentatuko dute. Hiru astean behin egingo dute irakurketa foro feministaren saioa. Kontakturako: martxanterak@gmail.com eta Facebook bidez.

Guraso izatea hobeto bizitzeko gakoak, Mariaren Lagundian

Gure barneari begirako lanketa bat du izenburua saio sortak. Saioak azaroaren 15ean, abenduaren 13an, urtarrilaren 17an eta otsailaren 13an izango dira, eta horien aurkezpena martitzen honetan egingo dute, 18:00etan. Jesus Mari Matak gidatuko ditu saioak, eta gurasoei eta irakasleei zuzendutakoak izango dira –ez soilik ikastetxekeoi–.

1951n eta 1964an jaioetako ospakizunak

1964koek hilaren 12an egingo dute afaria, Sirimirin. Bihar amaitzen da izena emateko epea; Ikuz garbategian eman behar da, azokan. 20 euro aurreratu behar dira. 1951n jaioetakoek, berriz, hilaren 19an egingo dute afaria, Zumelagan. Izena emateko –15era arte–: 615 70 90 02 eta 943-76 20 21. Bien hitzorduak dira 20:00etan Ariznoan.

Egitaraua

Azaroak 4

- **19:15** Hitzaldia: Grabitazio uhinak, museoan. Jon Urrestilla, EHU.

Azaroak 5 eta 6

- **10:00etan hasita** Wolfram Encounter, Aranzadi ikastolan.
- **12:00** Juanelo Turrianoren mekanismoa eskalan; aurkezpena, museoan.

Azaroak 7

- **19:00** Mahai-ingurua: Ziberbullying-a, Irizarren.

Azaroak 8

- **18:00** Ekintzailetasunari buruzko saioa, museoan.

Azaroak 9

- **14:00** Lehiakortasunari buruzko formazio saioa merkatariarentzat, museoan.

Azaroak 10

- **19:30** *Wolfram deuna*, umorezko zientzia hitzaldiak, Arozegin. Elhuyar.

Azaroak 11

- **09:00** Enpresen barnetegi teknologikoa, Lasa jatetxean.
- **19:15** Hitzaldia: Espazio bidezko neutroi iturria, museoan. ESS Bilbao.

Azaroak 12

- **09:30 eta 11:30** Camp teknologikoa, museoan (8 urtetik gorakoentzat, aurrez izena emanda).
- **17:00** Kimika esperimientuen tailerra (8-12 urte; izena, aurrez), museoan.

Azaroaren 7tik 11ra

- Erakusketa: Kimuberriko proiektuak, museoan.



Bergarako Udala

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena.
2. Ekonomi jardueren gaineko zerga arautzen duena.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
4. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena.
5. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
6. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen.
7. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituen.
8. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden prezio publikoak arautzen dituen.

Erabakia Udalbatza Osoak 2016ko urriaren 24ko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedienteaz aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinarazi zaio jendeari 2016ko urriaren 27an argitaratutako iragarkiaren bitartez eta 2016ko urriaren 28tik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berriak hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2016ko urriak 27
ALKATEA



**10 urte
baina gehiago
Bergaran!**



943 25 06 77



Herritarrak Aroztegi aretoko erakusketa bisitatzen. IMANOL SORIANO

Mende aldaketa bat argazkietan islatuta

Joan den egubakoitza ezkerro eta azaroaren 13ra arte, Valleko kondea zenaren inguruko erakusketa dago ikusgai Aroztegi aretoan. XIX. eta XX. mendeen artean gertatu ziren gizarte aldaketa sakonak ikus daitezke mostra honetan

Maite Txintxurreta BERGARA

Valleko kondea, modernitatea eta tradizioa. Garai aldaketa baten isla izeneko erakusketa ikusgai dago egubakoitza ezkerro eta azaroaren 13ra arte Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Bergarako Artxiboaren eskutik dator mostra hau, eta Valleko kondea zenaren

argazki artxiboko lanez osatuta dago.

Valleko kondea Ignacio Murua Balzola zen, eta bere zaletasunik handienetarikoa argazkilaritza zen. Gaur egun Kultura Etxea den Errotalde jauregiaren jabea zen, eta bertan zeukan argazki estudiodia.

Erakusketa

Valleko kondearen inguruko erakusketa horretan, 128 argazki izango dira ikusgai. XIX. mende bukaeratik XX. mendeko 30eko hamarkadara artekoak dira, Bergaran ateratakoak. Garai hartako "gizarte aldaketaren erakusle" moduan aurkezten dute antolatzaileek.

Artxiboko fondoa

Aroztegi aretoko erakusketan ikusgai izango direnak 128 argazki dira, bai, baina Bergarako artxiboan aukeraketa lan mardula egin behar izan dute; izan ere, Valleko kondearen fondoak 1200 argazki inguru dituela azaldu du Artxiboko arduradun tekniko Arantzazu Oregik.

Gainera, fondo hori osatzen duten argazkien gehiengoa dohaintzan jasotakoa da; hainbat herritarrek urteetan zehar Bergarako Udal Artxiboari lagatakoak, alegia.

Argazki horietako askotan, atzealdean Ignacio Murua Balzola kondeak berak eskuz idatzitako informazioa dago, non tokiak, datak edo agertzen diren pertsonak zerrendatzen dituen. Izan ere, Udal Artxiboan uste dute kondearen asmoa, kasu askotan, gertaera edo egoera jakin batzuk "jasota gelditzea" izaten zela. Beste batzuetan, aldiz, oroigarri gisa gordetzen zituen.



Horrez gain, bitrinetan gorde-tako kondearekin lotutako denetarikoko materiala izango da: dokumentazioa, eskutitzak...

zen, ikasketetako gaiak ilustratzeko, nagusiki. Ikus-entzunezko tresna zen, irudiak proiektatu bitartean soinu jartzen baitzen sinkronikoki.

Garaiko baliabideak

Mende aldaketa hartako gizartea islatzen duten argazkiak ikustez gain, orduko argazkilaritza teknikak eta erabiltzen ziren materialak eta euskarriak ere ezagutu daitezke Aroztegiiko mostra bisitatuta.

Linterna magikoa, esaterako, proiektzioak egiteko erabiltzen

Aroztegin ikus daitezkeen beste tresna batzuk estereoskopioak dira. Horiek irudia hiru dimentsiotan ikusteko aukera ematen zuten. 1851n hasi zen merkaturatzen.

Lumiere autokromoak, berriz, beira gaineko kolorezko argazkiak dira. Horiek patata-fekularekin egiten ziren.



BERGARAKO UDALA

Ipintzako harmailak

Argazkian ikusten dena bezalako itxura izango dute Ipintza futbol zelaian eraikiko dituzten harmailak. Kiroldegi aldera kokatuko dituzte, eta gupil aulkian dabilzanendako kiroldegiko tabernatik sarbide berezia izango du. Udalak lehiaketa publikoa zabaldu zuen, eta

Gabika enpresari esleitu dizkiote harmailen eraikuntza lanok, 141.000 euro inguruko aurrekontuarekin. Prozesua dagoeneko martxan dago. Hala, egunotan lanak hasi eta aurreikusten dute 2017. urte hasierarako bukatzea.



NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

Zalantza handia

Nabarmena da gizaki guztiak mugatuak garela, ez dago horri buruz komentario gehiegi egin beharrik. Duela gutxi hitzaldi on batean izan nintzen, *Nik sinisten dut... Ni ateo naiz... Errealitatera gerturatzen* izenekoak, eta aipatu ziren eguzki sistemaren, planeten, eta abarren sorreraren inguruan zientziak deskubritutakoak; batez ere, horren entzuna eta miretsia den Stephen Hawking zientzialari eta astrofisikoak deskubritutakoak. Ezaguna da Hawkingek bere burua ateotzat duela, oinarritzat hartuta guztiaren jatorrian berezko sorrera izan zela edo izan zitekeela. Jakina, horrela izan zitekeen... ala ez, zeren, ez berak, ez beste inork ezin du frogatu (ala ez frogatu) izaki goren bat dagoenik edo ez dagoenik. Beraz, Stephen Hawking, nahiz pertsona oso ona izan, ez da niretzat inongo erreferentzia.

Puntu honetara iritsita, iruditzen zait gizakiak muga nahi duen altueran ipintzen duela, edo interesatzen zaion bezala markatzen duela. Alegia, Luis Buñuelek esaten zuen hura, "Ateo naiz Jainkoari esker". Neuri kostaldea asko gustatzen zait, ia mendia bezainbeste, eta Bergaran bizi izanda, kostaldearen muga Deban jartzen dut. Noski, erosotasunagatik, eta polita izateagatik.

Monzonen poema sorta, 'Urrundik' sorterrira

Olaso dorrean aurkeztuko dute, gaur, idazle eta politikari bergararra Mexikon zela 1945ean plazaratutako liburuaren berrargitalpena –bere lehenengoa izan zen–. Begiraleak elkarteak –Iparraldekoa– argitaratu zuen iaz, omenaldi gisara

Julen Iriondo BERGARA

Begiraleak elkarteak Olaso Dorrea Fundazioaren laguntzaz berrargitaratu du Telesforo Monzonen *Urrundik* poema liburua. Tenancingoko erbeste garaian 1945ean aurreneko plazaratua, arrazoi politikoengatik deserri-ratutako euskaldun baten herriarekiko sentimenduak agertzen ditu liburuak. 18:30ean aurkeztuko dute, ekitaldi ireki batean.

Monzonen lehenengo liburua izan zen *Urrundik*; Monzonen lehenengoa eta 36ko Gerra osteko euskarazko lehenengotarikoa. Bergara sorterriraren aipamen samurra, itsastarraren eta artzainaren figuren laudorioa, pilota partida baten kontaketa... jasotzen ditu bere poemetan. Bildumaren amaierako partiturrek erakusten dute, gainera, olerkiok kantatuak izateko idatziz zituela. Telesforo Monzoni omenaldi gisara argitaratu zuen berriro iaz liburua Begiraleak elkarteak.

Donibane Lohizunetik sortua

1932an eta 1933an hainbat bilkura izan ziren Donibane Lohizunen euskal kulturaren aldeko elkarte bat sortzeko, eta egin-dako lanak fruitua eman zuen. 1935ean sortu zen Begiraleak



Telesforo Monzon. GOIENA

elkartea. Sortzaileen artean ziren Mixel Dihartze, Elise Aramendi, Piarres Lafitte, Eugene Goienetxe, Jauregiberri medikua, Iratzeder, Madalena Jauregiberri... 300dik gora bazkiderekin, hainbat adierazpide jorratzen dituzte egun: literatura, antzerkia, kantua, dantza, sukaldaritza, festak, mendia, etnografia...

Negu-minez idatzia

Urrundik izeneko poema sortako bat da hau, non Monzonek erakusten duen Euskal Herriko neguaren falta sumatzen duela.

TROPIKO'TIK

*Neri zer ajola,
neguan eguzki ta bero ta lora?
Nere mendi busti
lañuaz yantzita, nai nituzke ikusi!
Nik ez artzen poza
neguan, ez ba'det euri ta aize t'otza...
mendietan elur,
auzoraño otsoa yetxiko dan bildur,
ta bideetan loa,
baserritik kalera neguan ba'noia...
Zugaitzak, ostu-utsik,
ez al du, bidean, aitonaren antzik?
Ene Negu maite...!!,
zure magalera nik igesi arte,
eguzki onen min
osatu zaidazu Lañu-oroitzakin...*

TELESFORO MONZON

The Northagirres eta Petti, Lainoren urteurren festan

Bihar –zapatua– izango da ospakizuna, eta 22:00etan hasiko dira kontzertuak. The Northagirres urretxuarrak eta Petti nafarra igoko dira taula gainera. Egitaraua, ordea, zabalagoa da: 14:00etan hasita parrillada eta urdaiazpiko mozketak egingo dituzte, eta 16:00etan miniramp txapelketa. Captain Jairock eta DJ Sbars ere izango dira.

Gartzia eta Otxoa, San Pedroko organoaren aldeko kontzertuan

Ana Belen Gartzia organo-jole andoaindarrak eta Ana Otxoa Pando soprano bilbotarrak Stoltz-Freres organoaren aldeko saioa egingo dute domekan, 19:00etan Santa Marina parrokian. Usandizaga, Guilmant, Pergolesi, Vivaldi, Bach, Haendel, Mozart, Rossini, Faure eta Verdiren obrak interpretatuko dituzte.

Gipuzkoako Txapelketako lau lehia gaur frontoian

19:15ean hasita, lehenengo bi partiduetatik lehenengoak izango dira. Barrokalek eta Arinek ordezkatzuko dute Bergara LPKE-ren eta Sendi Ekintzaren kontrakoetan. Infantil mailakoa izango da hirugarrena, Etxaniz Aretxabaleko ordezkariaren kontra. Azkenik, jubeniletan eta palaz, Mundaroren kontra ariko dira Guridi eta Agirrezabal.

Txotxongiloak domekan Zabalotegin, Kontakatillurekin

Katillukadak txotxongilo ikuskizuna izango da domekan, 18:00etan, Zabalotegin, Jardunek antolatuta. Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendutakoa da, eta txotxongiloak manipulatzeko bost teknika erakusten ditu, lau ipuin labur antzeztu bitartean. Katillu bertsolari ohia da saioko protagonista. Ikuskizuna doakoa da.

Gaur 19:30ean inauguratuko du Lokatzak erakusketa

40. urtemugako ekitaldien barruan, gaur –egubakoitza– egingo dute Dixula tabernan ikusgai dagoen erakusketaren inaugurazioa. Bestalde, gaur amaituko da azaroaren 19ko bazkarirako Grazian mertzerian, i2 Kirolak dendan eta Biciprecision Igar-tuan izena emateko epea. Aste-buruan *lokatzak* ze@hotmail.com helbidean eman ahal izango da.

Saskibaloia eta futbola izango dira asteburuan etxean

Orain arte jokaturako ligako lau partiduetatik erdia irabazi eta erdia galdu dituen Soralue BKEk denak irabaziak dituen Viento Sur talde elgoibartarra hartuko du bihar, zapatua, 16:30ean Labegarietan. Futbolean, berriz, oraindik irabaztea zer den ez dakien Intxurreren kontra jokatuko du bihar Bergarak Agorrosinen, 15:45ean.

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Mapa toponimiko eguneratua du Antzuolak

Udalak herriko mapa toponimiko berria aurkeztu du asteon. 2014. urtean atera zuten azkena eta oraingo honetan herriko zenbait interesguneren izenak eguneratu dituzte. Udalak 3.000 ale kaleratu ditu eta ondorengo egunetan etxez etxe banatuko ditu

Ibon C. / Maider A. ANTZUOLA

Antzuolak mapa toponimiko berria dauka. Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean atera du Udalak. 2004an egin zen maparekin alderatuz, oraingoak hainbat datu ditu eguneratuak. Horrez gain, aldaketa arkitektoniko ezberdinak ere erregistratu dituzte bertan.

Udalak mapa horien 3.000 ale atera ditu herriarren artean banatzeko. 10.700 euroko kostua izan du eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde politika sailak 7.000 euro jarri ditu proiektua aurrera eramateko.

Gainera, Hezkuntza, Hizkuntza eta Politika sailak bere datu-basean jarri du eskuragarri Antzuolakoa ere. "Gure datu basea orain 30 urte sortu zen. Baina, bilketa orokorra denez, aprobetxatzen dugu Udaleko mapak egiten direnean gure datu baseko datuekin alderatzeko eta eguneratzeko. Eta aurkitzen ditugun kontraesanak Udalarekin lankidetzan, arautzen ditugu", azaldu zuen aurkezpenean Eusko Jaurlaritzako Toponimia arduradun Mirari Alberdik.

Aldaketak eta eguneraketak


Mapa berriak hainbat aldaketa arkitektoniko erregistratu ditu. Besteak beste, Torresorua eraikina, eskola ondoko patio estalia, eta eraikitze prozesuan dauden trenbide eta errepidea. Toponimiari dagokionez, 2004ko maparekin alderatuz, inguruko auzoetako baserrien izenak erregistratu dira, herriko zenbait zerbitzuekin batera. Hirigintza teknikari Valen Moñuxek aipatu duenez, mapak 2004ko edizioak izan zituen koordinada akatsak zuzentzen ditu. "Ez dauka garrantzi handirik herritarrendako, baina bai teknikariendako. Hau da, UTM deritzoten koordinada unibertsalak aldatu egin dira. Eta orain arte guk geneuz-



Beñardo Kortabarria, Lierni Legorburu, Mirari Alberdi eta Valen Moñux. IBON CARMONA

kan planoetan, topografia orokorretan, mugituta zeuden. Eta legeak eskatzen du hori eguneratzea. Lehen, esate baterako, 20 metroko akatsa, errorea, geneukan gure topografian eta orain bikain egokituta dago", argitu du Moñuxek.

Antzuolako Udalak mapa horien 3.000 ale atera ditu herriarren artean banatzeko. Ondorengo egunetan egingo dute etxez etxeko banaketa. Baina udaltxeko bulegoetan ere jarriko dute eskuragarri norbaitek jasoko ez balu.



Hiru mapak osatzen dute lana

Mapa toponimikoak, ortoargazkiak eta kale izendegiak osatzen dute eguazten goizean aurkeztu zuten mapa. Modu horretan, kale, auzo, baserri zein bestelako herriko interesguneak eguneratuak geratu direla azaldu dute Udaleko eta Jaurlaritzako ordezkariak.

Abian da udalerriko gazte txokoko ikasturte berritua

Asteburuan, nolako gazte txokoa gura duten erabakiko dute Antzuolako gaztetxo guztien artean

Maider Arregi ANTZUOLA

Bihar, zapatua, irekiko ditu gazte txokoak ateak. Apirilera arte makina bat ekintzaz gozatzeko aukera izango dute herriko gaztetxoek. Aurten, baina, nolako gazte txokoa gura duten gaztetxoei euren galdetuko diete: "Aurtengo ikasturteko programazioa gaztetxoekin beraiekin nahi dugu osatu. Azken finean, eurak dira gazte txokoan egongo direnak. Beraz, euren gustu, nahi eta ideiekin, denon artean saiatuko gara programazioa zehazten. Hala, asteburuan, inguratzen

diren gaztetxo guztiekin hasiko gara nolako gazte txokoa behar dugun pentsatzen. Horren arabera, lokala bera margotu eta egin behar diren aldaketak egingo ditugu. Beraz, garrantzitsua izango da azaroko lehen asteburuan ahalik eta jende gehien elkartzea", dio Itsaso Garmendia dinamizatzaileak.

Gazte txokoa zapatuetan 17:00etatik 21:00etara eta domeketan 17:00etatik 20:00etara bitartean egongo da zabalik, DBH-1etik DBH-3ra arteko gaztetxoei zuzenduta.



IMANOL SORIANO

San Jose ingurua txukuntzen

Hamazazpi lagun aritu ziren zapatu goizean auzolanean. San Jose ingurua txukundu zuten eta zabor dezente batu zuten. Parkea eta bertara doan bidea garbitzen aritu ziren. Asteazkenean, Udal langileek jardun zuten sasiak garbitzeko makinaz lanean eta zapatuan hori ere batu eta txukundu zuten boluntarioek auzolanean.

Perretxikoez gehiago jakiteko aukera izango da Arrolarekin

Bihar, perretxiko bila irtengo dira 08:30ean plazatik. 13:30ean perretxikoak Olanerara eramango dituzte. 16:00etan perretxikoen sailkatzea egingo dute. Edozeinek izango du bertaratzeko aukera. Zalantzak erantzun eta azalpenak emango dituzte adituek. Domekan, batutako perretxikoei erakusketa jarriko dute Olaneraren, 12:00etan.

Heriotzaren aurrean jokatzeko laguntzeko hitzaldia, Olaneraren

Nola lagundu gaixotasun larria eramaten; azken nahiak; bizi-testamentua edo Heriotza Dui-naren Euskadiko legeaz jardungo du hilaren 7an, astelehena, Maite Urzainek. Bera osasun mentalean eta doluan aditua da. Eta erizain geriatrikoa da Bergarako Mizpirualden egoitzan. Hitzaldia Olaneraren etxean izango da 18:00etan hasita.

"Espaloia gune fisiko bizia izatea nahi dugu"

JANIRE LAZKANO KULTURA ZINEGOTZIA

Elgetako kafe antzokiaren kudeaketa esleitzeko lehiaketa publikoa hutsik geratu ostean, prozedura negoziatua abiaraziko du Udalak. Zabalik da izen-ematea

Larraitx Zeberio ELGETA

Kafe antzokiaren kudeaketaren esleipena fase berri batean da. Prozedura negoziatua egingo du Elgetako Udalak, eta izaera publikoa izango du. Interesatuak hilaren 11ra arteko epea dute parte hartzea eskatzeko. Aurreko baldintza orokorrak izango dira negoziazioaren abiapuntua. **Prozedura negoziatua abiaraziko du Udalak. Zergatik?**

Hainbat aukera sortu zitzaizkigun, lehiaketa publikoa hutsik geratu ostean. Aukeren artean zeuden prozesua bertan behera uztea eta Espaloia itxita lagatzea, barne mailako prozedura negoziatu bat egitea, edo prozedura negoziatu hori publiko egitea eta edonori ematea bertan parte hartzeko aukera. Azken hori iruditzen zaigu aukera interesgarriena, beste behin herritarrei luzatzen diegulako parte hartzeko aukera horrela. Eta inguruko herrietako jendeari ere bai, noski. Nahiz eta hasieratik finkatutako baldintza orokorretara ez heldu, interesdunek aukera izango dute esateko antzokia zelan kudeatuko luketen.

Zeintzuk dira negoziagarri izango diren terminoak?

Legeak ezartzen dituen puntu asko daude. Horiek ezingo ditugu negoziatu. Bai, ordea, alokairuaren inguruan, egutegiaren inguruan, kultura eskaintza emango den edo ez, hobekuntzen inguruan... Horiek bai izango dira puntu negoziagarriak.

Noizko aurreikusten duzue Espaloia kafe antzokia zabalik egotea?

Legeak epe batzuk markatzen ditu. Oraingoan, azaroaren 11ra arteko epea ipini dugu interesa dutenek horrela adierazteko. Gero, denbora bat beharko dute nork bere proposamena aurkezteko, eta kontratazio-mahaiak erabaki beharko du zein den proposamenik egokiena. Egokiena, bai Espaloia kafe antzokiarendako, bai herriarendako.



Janire Lazkano, Elgetako kultura zinegotzia. EH BILDU

Erabaki hori hartutakoan ikusi beharko dugu zein denboratan jartzen den martxan antzokia; izan ere, esleipendunak dokumentazioa aurkeztu beharko du eta kontratua formalizatu beharko dugu. Horrek ere bere denbora eskatzen du.

Udalak zer du buruan antzokirako?

Nahi duguna da azken urteetako gainbeherari behin betiko amaiera ematea. Nahiko genuke —eta parte hartze prozesuan horrela irten zen— herritarrekin batera adostea Elgetak zein kultura eskaintza behar duen. Es-

paloia gune fisiko bizia izatea nahi dugu zeinek ahalbidetuko duen kultura eskaintza hori aurrera eramatea.

Eta Udalak jarraipena egingo lioke antzokiaren martxari?

Elgeta herri txikia da eta jarraipena modu naturalean egiten da. Udala, gainera, parte aktibo izango da Espaloia kafe antzokian. Horretaz gain baldintza orokorrek aurreikusten dute beharra ikusiz gero Udalak ikuskaritza egiteko aukera izango duela 24 ordu lehenago eskaera eginda.

Prozedura negoziatua pausoz pauso

Espaloia kafe antzokiaren kudeaketarako prozedura negoziatuan parte hartzeko interesa dutenek udaletxeko idazkaritzarekin jarri behar dute harremanetan —*idazkaritza@elgeta.net* edo 943 76 80 22—. Udalak azaroaren 11ra arteko epea zabaldu du interesa hori agertzeko. "Jarraian, Udalak, prozedura negoziatuan parte hartzeko gonbidapena luzatuko die interesa hori adierazi duten guztiei, eta aurretik egindako lehiaketa publikorako prestatutako baldintza orokorrak bidaliko dizkie; izan ere, horiek hartuko ditugu oinarri negoziatzen hasteko", azaldu du kultura zinegotzi Janire Lazkanok. "Ondoren, interesa dutenek epe bat izango dute nork bere proposamena aurkezteko. Kontratazio-mahaiak erabakiko du proposamen egokiena zein den".

Domeka eguerdian egingo dute Elgetako IX. pintxo lehiaketa

Sarituak 14:00etan jasoko du txapela. Herritarrek beste bi domeka izango dituzte Publikoaren Saria erabakitzeko

L.Z. ELGETA

Herriko lau tabernak hartuko dute parte lehiaketan. Aurten, ordea, pintxo bana gertatuko dute. 2016ko irabazleak egunean bertan jasoko du saria. Txapelak Jainaga eta Narbaiza trikitilarien musikarekin lagunduta egingo du herriko plazatik dagokion tabernarainoko bidea, 14:00etan. Eta bada gehiago. Herritarren parte hartzea sustatzeko aurten ere beste bi lehiaketa egingo dituzte herrian. Taberna bakoitzak bere pintxoaren

ren osagaiak asmatzeko erronka botako du. Asmatzaileen artean txakolin eta ardo ondu botila bana zozketatuko dituzte.

Publikoaren Saria ere jokatu-ko da aurten. Herritarrek beste bi domeka izango dituzte botoa emateko. Aurten, lau tabernetako pintxoak dastatu beharko dira botoa kontuan hartua izateko. Betetako txartelen artean, taberna irabazlean erabiltzeko 30 euroko zozketa egingo du Udalak. Pintxo guztiak euro bateko prezioan izango dira.

Ipuinak entzuteko eta idazten ikasteko aukera liburutegian

Goiena komunitatea

Udal Liburutegia / ELGETA

"*Ipuinen ordua* izango dugu osiralean liburutegian", adierazi dute antolatzaileek. Bi saio izango dira eta boluntario taldearen eskutik etorriko dira. Lehenengo 16:40an hasiko da eta bost urteko gelatik gorako neska-mutikoendako izango da. Bigarrena 17:25ean izango da eta bi

urteko gelatik gorako haurrendako izango da.

Azarora begira, bestalde, 6-12 urte bitarteko neska-mutikoendako *Zure liburua idatziko duzu?* sormen tailerra iragarri dute liburutegitik. "Tailerra, hasiera baten, azaroaren 9an, 16an eta 23an —asteazkenak— izango da, 17:00etatik 19:00etara. Alabazan taldeko Bego Alabazan-ek gidatuko du". Gehienez, hamabost laguneko taldea egingo dute. Interesatuak gaur dute izena emateko azken eguna.

Gaztaina erre jana gaur eskolan eta erretiratuen elkartean

Urtero, azaro hasieran, gaztaina erre jana egiten dute bai Herri Eskolan, bai Xalbadorpe erretiratuen elkartean. Gaur, azaroak 4, egingo dute urteroko ospakizuna leku bietan.

Herri Eskolako ikasleak, irakasleak eta gurasoak 14:45ean elkartuko dira frontoi zaharrean Enrike P. Arantzabalek danbolinean erretako gaztainak jateko. Aurretik, kantuan egingo dute.

Erretiratuek 18:00etan eman- go diote hasiera ospakizunari Ozkarbi elkartean. Aurten ere 25 bat kilo gaztaina prestatuko dituzte lagunartean jateko. Pedro Mari Uberak erreko ditu. Elkarteko bazkide guztiak daude gonbidatuta.

PILOTA TXAPELKETA

EMAITZAK - 2. JARDUNALDIA

H. Gallastegi-O. Askasibar / I. Ugarteburu-S. Bouzas **18-06**
I. Retolaza-M. Elgoro / A. Telleria-A. Ibarluzea **18-05**
E. Ormaetxea-A. Valle / M. Beretxinaga-I. Unzetabarrenetxea **18-13**
A. Elorza-O. Sarasua / E. Garate-E. Maguregi **18-09**

PARTIDUAK, 3. JARDUNALDIA

GAUR, BARIKUA, 18:30EAN

H. Gallastegi-O. Askasibar / J.M. Zubiaurre-P. Larrea
I. Retolaza-M. Elgoro / I. Ugarteburu-S. Bouzas
M. Beretxinaga-I. Unzetabarrenetxea / E. Garate-E. Maguregi
D. Cantabrana-T. de Vega / E. Ormaetxea-A. Valle



Herritarrak Kale Zaharrean eguen goizean. M.A..

Mantendu egingo dira udal zerga gehienak

Hondakinena, ondasun higiezinena eta motordun ibilgailuenak igo egingo dira 2017an eta kide ugariko familiak eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun diren pentsiodunek hobariak izango dituzte. Aho batez onartu ditu udalbatzak.

Oihana Elortza OÑATI

Datorren urteko udal zerga ordentantzak aztertzeke orduan, daudenetan mantentzea izan da Udal Gobernuak hartu duen irizpide orokorra, salbuespenak salbuespen. IB-lari dagokionez, esaterako, Aldundiak balio katastralaren berrikuspene eginda, etxebizitzaren balioa %8 handiagoa dela esan du eta industriarena, berriz, %24 txikiagoa. Proposamena, baina, denei igoera berdina aplikatzea izan da: %2.

Beste salbuespen bat motordun ibilgailuak dira; %2 igoko da zerga hori ere. Igoko den hirugarren zerga hondakinena da. Izoztuta egon da azken urteetan, eta %10 igoko da 2017an. "Oñatiko herritarrek 100 euro ordaintzen dute. Mankomunitateko kalkuluen arabera kostua da 127 euro herritar bakoitzeko eta gure proposamena izan da 100 eurotik 110era igotzea", azaldu du Mikel Biain alkateak. Jarduera ekonomikoen zergaren tipoa, berriz, %2,20tik %2,2ra jaitsi da. Gainera, aurrerantzean, fak-

turazioaren arabeko koefizienteak aplikatuko dira, Arrasaten egiten duten moduan, eta ez leku fisikoari zegokiona.

Aho batez

EAJ alderdiak ekarpenak egin ditu eta Udal Gobernuak ontzat eman ditu. Hala, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzen duten pentsiodunek kontribuzioan eta obrak egiteko zergetan hobariak izatea izan da proposamene-tako bat eta beste bat familia ugariak ere hobaria jasotzea ibilgailuagatik ordaindu beharreko zergan, betiere, diru sarreraren arabera. Bi puntu horiekin bat egin du Udal Gobernuak. Baina puntu batean zehaztasun falta dagoela uste du EH Bilduk; gura-

URRIKO OSOKO BILKURAN ONARTU DIRA ZERGA ETA URTARRILEAN APLIKATUKO DIRA

so bakarrek familien kontuan, hain zuzen. EAJk horrelako familiei hobaria aplikatzea proposatu du, baina alkateak esan du proposamen hori berandu jaso dutela eta subjektu pasibo hori nor den zehaztu gura dutela. "Familia horiek foru arauen arabera eta errenta arauen arabera ondo definitu daitezke nortzuk diren, badago aukera. Guk gura genuen egoera ekonomiko larri horiek eskusiora eramaten dituzten herritarrak hobaritzea udal zergetan, diruz lagundu", argitu du Lourdes Idoiagak osoko bilkuraren amaieran. Guztia berresten duen prentsa oharra ere ateratu du EAJko udal taldeak. Gaia landuko dutela esan du alkateak, 2018ko zergei begira. Hala, proposatu du batzorde bat sor daitekeela gai hori berdintasun ikuspuntutik ere lantzeko.

EAJren ekarpen gehienak onartu zirelako botatu zuten alde jeltzaleek, eta alkateak zergak aho batez onartzea "esanguratsua" dela uste du.

Musikegunak hasten da, ume eta helduendako kontzertuekin

Azaroko domeka guztietan izango dira emanaldiak Santa Anan. 27koan Oñati abesbatzak abestuko du.

O.E. OÑATI

Adin tarte ezberdinei zuzendutako emanaldiak daude aurten- go Musikegunak egitasmoaren barruan. Betiko moduan, azaroko domeketan izango dira ekitaldiak Santa Ana aretoan. Lehenengoa domeka honetan, 19:00etan. Donostiatik etorriko den Bay Trio ganbara taldearen kontzertua izango da; Brahms eta Guinovart artista garaikidearen lanak eskainiko dituzte.

Hilaren 13ko emanaldia Pello Ramirez, Jon Goenaga, Andoni Salamero eta Josu Maroto lau-

koteak egingo du, musika eta olerkiak uztartuta. Opera ikuskizuna ere badago programaren barruan. Opera Divertimento taldeak *Txirula magikoarekin jolasean* ikuskizuna eskainiko du familiendako azaroaren 20an. Hileko azken domekan, berriz, 27an, Oñati abesbatzak kantatuko du 50. urteurreneko ospakizunen barruan.

Sarrerak

Emanaldi guztietarako sarrerak dagoeneko salgai daude <http://bibe.me> helbidean.



OIHANA ELORTZA

Osasun azterketa pasako du

Duela aste pare bat arrama handi bat erori zitzaion Gernikako arbolari, eta horren zergatia jakin gura dute. Itxura baten, osasuntsu dago haritza eta dagoen tokian gustura dagoela dirudi, baina osasun azterketa pasako du. Datorren astean etorriko da aditu bat hori egitera. Bitartean, bihurtik aurrera, Santa Marinako plazan egingo da zapatueta arropen azoka.

Katastroari buruzko informazioa duen bulegoa zabaldu dute

Katastroari buruzko informazio bulegoa egokitu dute udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan. Informazioa edota aurrez aurreko elkarrizketarako txandak telefono zenbaki honetara deituta emango dira: 943 78 34 88. Ordutegia da astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara.

Lurra, transmisioa eta gazteak izango dituzte hizpide

Iker Elozegi Euskal Herriko Laborantza Ganbarako teknikaria eta Maite Aristegi izango dira hizlariak eta luraren transmisioa gazteen instalakuntzan izango da landuko duten gaia-tako bat. Udaletxean izango da hitzaldia, eguaztenean, 18:00etan. Hilaren 26an irteera egingo dute Aiherrara. Izena emateko bidea da: 656 78 14 15.



Irurzun, Elkoroiribe, Freire eta Guridi, eguazteneko entseguan. MIREIA BIKUÑA

Lau gazte oñatiar trikiti jaialdian izango dira

Ane Irurzunek, Malen Elkoroiribek, Nora Freirek eta Maddi Guridik Oñatiko VIII. Trikiti Jaialdian hartuko dute parte, azaroaren 12an; horrelako tamaina duen jaialdi batean joko duten lehen aldia izanik, urduritasuna nabari dutela aitortu dute trikitilariak

Eneko Azurmendi OÑATI

Azaroaren 12an egingo dute Oñatiko VIII. Trikiti Jaialdia, eta bertan, beste hainbat protagonistaren artean, lau gazte oñatiarrek hartuko dute parte. Hiru trikitilariak –Irurzun, Elkoroiribe eta Guridi– eta pandero-jole batek –Freire– osatzen dute trikiti taldea.

"Irakasleak proposatu zigun jaialdi honetan parte hartzeko. Esan zigun aukera egokia zela, guretako, trikitia astintzeko eta jendaurrean lotsa kentzeko", azaldu du Malen Elkoroiribek, taldeko kideetako batek. Gaineratu du hasieran "kosta" egin zitzaiela erabakia hartzea, baina, azkenean, animatu direla.

Lehen aldia

Elkoroiribek azpimarratu du "hainbeste jende" biltzen duen jaialdi batean joko duten lehen aldia izango dela. "Jo izan ditugu kontzertuak, baina tamaina honetako jaialdietan, oraindik ez", azaldu du.

Talde berria

Duela urtebete inguru hasi ziren talde moduan funtzionatzen; hala ere, orain arte denbora-pasa moduko bat zen eurentzat. "Aukera hau suertatu zitzaigun arte, taldea ez zen oso serioa. Taldea bera sortzeko ideia ere txantxetan aipatu genuen. Baina irakasleak hori entzun zue-nean, animatu egin gintuen, eta, berari esker, hemen gaude", azaldu du Maddi Guridi trikitilariak.

Urduri

Lehen aldia izate horrek urduritasun puntu bat eragiten die-la aitortu dute protagonistek. "Eguna gerturatuz doan heinean,

urduritasuna ere gorantz doa", nabarmendu du Guridik.

Bi abesti

Jaialdi honetan ohikoa den moduan, bi abesti eskainiko ditu Oñatiko laukoteak. "Bata irakasleak jaialdirako konposatu digun abestia da eta bestea, Txomin Artolaren *Txuriko* abestia", azaldu du Guridik. Lehenengoa "alaia eta erritmo askokoa" dela aitortu du trikitilariak eta bigarrena, berriz, "lasaiagoa".

Entsegu ordu asko

Bakarrrik bi abesti diren arren, asko entseatu dutela azpimarratu dute. "Uztailean hasi ginen entseatzeko eta ordu dezente sartu ditugu", dio Elkoroiribek. Guridik gaineratu du hasieran "lasai antzean" ibili zirela, baina orain, astean bi alditan, behintzat, entseatzeko dutela.

Hainbeste entseguren ostean, urduritasunak ahaztu eta kontzertuan "disfrutatzen" saiatuko direla baieztatu du Elkoroiribek.

JAIALDIAN PARTE HARTUKO DUTEN GUZTIENTATIK, GAZTEENAK DIRA OÑATIARRAK

Lau txirrindulari arituko dira aurten ziklo-kros denboraldian

Kadete mailan Ander Blazquez, Unai Cueva eta Aritz Torres eta junior mailan, berriz, Ander Gartzia

E.A. OÑATI

Pasa den egubakoitzean egin zuten ziklo-krosean 2016-2017 denboraldian arituko diren txirrindularien eta zuzendarien aurkezpena.

Lau txirrindulari arituko dira: Ander Blazquez, Unai Cueva eta Aritz Torres kadete mailan eta Ander Gartzia junior mailan. Hauetaz gain, Garazi Erostate oñatiarra ere arituko da, Caja Rural taldearekin.

Zuzendari lanetan Iker Arkauz, Julen Arkauz eta Xabier Aiausti arituko dira.

Denboraldia hasita

Dagoeneko hasita daukate denboraldia. Izan ere, bost lasterketa lehiatu dituzte orain arte –Urduña, Abadiño, Laudio, Muskiz eta Legazpi–.

Hurrengo lasterketa bihar, zapatua, izango da, Arrasaten.

Oñatin, 18an

Abenduaren 18an izango da Oñatiko lasterketa.

Horren ondoren, astebete geroago, Euskadiko txapelketak izango dira Berrizen, abenduaren 24an.



Pasa den egubakoitzean egin zuten aurkezpena. AMAIA TXINTXURRETA

II. Literatura Jardunaldiak "oso arrakastatsuak" izan dira

Liburutegiko zuzendari Arantzazu Ibarrondoren arabera, jendearen parte-hartzea eta harrera onak izan dira

E.A. OÑATI

Bi izan dira aurtengo jardunaldiak: plater nagusiak: alde batetik, Maialen Lujanbio eta Harkaitz Canoren solasaldia –Danele Sarriugarte aritu zen moderatzaile lanetan–; eta, bestetik, Bruno Montane txiletarraren hitzaldia.

"Jaso dugun *feedback*-a ezin hobea izan da. Jendea gustura ibili da eta parte hartu du. Gainera, hitz onak besterik ez dugu jaso", azpimarratu du Arantzazu Ibarrondok, liburutegiko zuzendariak.

Bailarara zabaldu guran

Ibarrondok gaineratu du bailara osora hedatzea dela helburua aurrerantzean. "Oraindik, bigarren aldia da. Baina, denbora-ekin, bailara osora zabaltzea gustatuko litzaiaguke, Debagoienan gure txokoa edukitzea", azaldu du. "Gainera, jendeak horrela segitzeko animatzen gaitu eta guk pozik jarraituko dugu jardunaldi hauek antolatzen", dio.

Hala, datorren urterako gonbidatuak pentsatzen hasi direla aitortu du zuzendariak.

Egin ala ez erabakitzeke, iragarpenei begira

MOTO-KROSA Bihar, zapatua, Euskadiko Txapelketako azken hitzordua dute Bergarako moto-kros zirkuituan, baldin eta azken momentuan antolatzaileek proba datorren astera atzeratzea erabakitzen ez badute; ez dute lokatzik gura

Xabier Urzelai BERGARA

Azken orduko erabakirik ez badago [azken ordukoa *Goiena*.eus atarian], moto hotsa itzuliko da Bergarako zirkuitura. Falcesen, Aldeanuevan, Karrantzan eta Ereñon lehiatu ostean Euskadiko Txapelketako azken puntuak Bergaran egongo dira joan, eta aurrealdeko postuetan hainbat debagoiendar izango dira lehian; tartean, Lander Gomez bergararra bigarren dago, eta Urtzi Markiegi ere postu berean da MX2 kategorian. Asier Blazquez podiumeko hirugarren postua defendatzen ahaleginduko da beterranoetan. Eta, Unai Markiegi eta Jon Ander Gereta ere irteera puntuan izango dira.

GOIENAKo erredakzioa itxi denerako antolatzaileak deiak egiten ari ziren, zer egin erabakitzeke: "Gaur [eguna] iluntzean hartuko dugu erabakia. Faena galanta da lasterketa bertan behera uztea, eta ekonomikoki galera dakar, dena antolatuta



Pilotuak Bergarako zirkuituan. GOIENA

dagoelako. Hainbat laguneren artean kontsultatu eta erabakia hartuko dugu. Dena dela, lasterketa bertan behera utzi baino gehiago, datorren astera atzeratuko genuke, azaroaren 12ra.

Puntako pilotuak Bergaran

Proba egiten badute irteera puntuan izango da MX2 kategorian Espainiako txapeldun izan den Ander Valentin nafarra; Nazionalean izan da aurten.

"Ez zaigu lokatza komeni; euri gutxi egiten badu, ez da arazorik egongo"

ASIER BLAZQUEZ ANTOLATZAILA

Lasterketa antolatzen ibili ostean, zapatuan zirkuituan gozatzeko tarte ere hartuko du Asier Blazquezek, beterrano mailan hirugarren postuan dago-eta bergararra.

Ze itxura du zapatuko lasterketak?

Eguraldiak dezente baldintza dezake lasterketa. Iragarpenek diote aldaketa datorrela, eta pena da, siku jarraitzea komeni zitzaigun eta. Halakoetan, zirkuituan sortzen den hautsa izaten da arazoa, baina horri aurre egiteko ur zisternak gertu genituen. Euri apur bat egitea



X.GOROSTI

ere ez zaigu txarto etorriko, horrela ez dugu zirkuitua urez bustitzen horrenbeste diru gastatuko, baina ez zaigu komeni zirkuitua lokatzea, ez da lasterketarako ona. Eta ez

dakigu zenbat euri egingo duen. Gaur [eguna] iluntzean hartuko dugu erabakia. Aurrera egiten badugu, ea ez duen zaparrada handirik botatzen.

Jende ona espero duzue.

Bai. Egia esan, lasterketa antolatzen ibili naiz eta ez ditut kategorია bakoitzeko gorabeherak horrenbeste jarraitu. Bergarako izango da Euskadiko Txapelketako azken lasterketa, baina sailkapeneko lehenengo postuak erabakita daude.

Nagusiendako lasterketak bai, baina gaztetxoendako ere egin dituzue topaketak.

Joan den astean 50 gaztetxo batu genituen zirkuituan, gazteenek sei urte izango zituzten. Sekulako ilusioa egin zidan, denak ziren gipuzkoarrak.

Hamar mila metro solidario, Antxintxika Krosean

ATLETISMOA Bihar, 16:30ean hasita, Soraluze eta Bergara arteko bidegorria atletaz beteko da

X.U. BERGARA

Bihar, zapatua, egingo dute Antxintxika Krosaren 12. edizioa, eta aste barruan dagoeneko ia 400 lagunek emana zuten izena –gehienez 600 lagunendako tokia dago-. Hala, parte-hartze kopuruari dagokionez, urteroko arrakastarekin ekingo diote ehunka atletak bihar 10.000 metroko lasterketari.

Azken urteotan moduan, oraingoan ere Antxintxikakoek proba antolatzearekin batera bat egin gura izan dute helburu sozial batekin, eta izen-emate bakoitzeko euro bat Fundame elkartera bideratuko dute, atrofia espinala ikertzen jarrai dezaaten.

15:00etan gaztetxoak

Arratsaldea girotzen joateko Bergaran bertan gaztetxoendako lasterketak antolatuko dituzte, baina hitzordu nagusia 16:30ean hasiko dute, Soraluzen. Eta hor, ikusteko dago atleten artean ze korrikalari nabarmentzen den. Hasiera baten, lasterketa sei aldiz irabazi duen David Gartzia durangarra da faborito nagusia, lasterketari neurria bikain hartu dio. [Ikus 6. orria]



2014an, atletak euripean. GOIENA

Ordutegiak

- 15:00etan Bergarako kaleetan gaztetxoendako lasterketak izango dira.
- 16:30ean Soraluzetik hanbike modalitatekoak abiatuko dira.
- 16:45ean Soraluzetik patinatzaileak abiatuko dira.
- 17:00etan Soraluzetik korrikalariak abiatuko dira.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

Zarautz-Mondra

Zapatua. 16:00. Asti.

Mutriku-Aretxabaleta

Zapatua. 16:30. San M.

Aloña Mendi-Elgoibar

Domeka. 16:30. Azkoag.

E. PREFERENTEA

Mondra-Lagun Onak

Zapatua. 16:00. Mojaitegi

Aretxabaleta-Soraluz.

Domekan. 16:30. Ibarra.

Bergara-Intxurre

Zapatua. 17:45. Agorrosin.

EMAKUMEZKOAK

Mutriku-Bergara

Domeka. 16:30. San Mig.

Arizmendi-Eibar

Domeka. 10:30. Ibarra.

Mondra-Anaitasuna

Zapatua. 18:00. Mojaitegi.

SASKIBALOIA

EBA

Burgos-MU

Domeka. 12:30. Burgos.

EUSKADIKO BIG. MAI.

Ibaizabal-Natra Oñati

Zapatua. 16:00. Galdakao

SENIORRAK LEHEN MAI.

Soraluce BKE-Viento

Zapatua. 16:30. Labegar.

SENIORRAK

Errotaundi-MU

Zapatua. 16:15. Azpeitia.

EMAKUMEZKOAK

Antigua L.-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Donostia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Izarraitz Muñoz-Donib.

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Ford Muga.-Escolapios

Zapatua. 17:00. Iturripe.

EUSKADIK. T. NESKAK

Ereintza-Iturritxo Aloña

Zapatua. 19:15. Erreñter.

GIPUZKOAKO TXAPELK

Eibar-Soraluce BKE

Zapatua. 19:00. Ermua.

MOTO-KROSA

Bergaran

Zapatua. 12:00etan.

ZIKLO-KROSA

Arrasaten

Zapatua. 09:00etan

hasita, Markuleten.

ATLETISMOA

Antxintxika Krosa

Zapatua. 16:30ean hasita,

Soraluzen.



Danele Sarriugarte, Maialen Lujanbio eta Harkaitz Cano, Oñatiko zinema aretoan egin zuten solasaldian. AITZIBER ARANBURUZABALA

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Irakurlea ez da izaki bakartia izenburua zuen solasaldia egin zuten Maialen Lujanbio bertsolariak eta Harkaitz Cano idazleak. Nor bere esparrutik, besteak beste, bakarkako eta taldekako lanaz, bertso eskola eta idazketa eskolez eta publikoaren eraginaz jardun zuten. Euskarazko Literatura Taldea gidatzen duen Danele Sarriugarte idazleak markatutako gidoiarekin, ordu eta erdi inguruan, belarriak gozatzeko moduko kontu polit asko esan zituzten hiruren artean.

Bi arloen arteko harremanaz

Gaian sartzeko, berotze aldera, bertsolariak eta literaturak elkarren artean duten loturaz galdetuta ekin zioten berbaldiri. Lujanbio orain dela 40 urteko eta gaur egungo bertsolaritzaren artean dagoen ezberdintasuna azpimarratu zuen, hasteko. "Lehen, beste testu inguru eta beste jendarte batean egiten zen bertsoan, eta, orokorrean berba eginda, literaturak eta horrelako erreferentziek ez zuten indarrik izango, nahiz eta bazeuden bertsolariak irakurriagoak eta jantziagoak zirenak. Gaur egungo bertso gintzara etorrita, gure belaunaldi eta gazteagoenganako, literatura ezinbesteko iturria eta erreferentzia da. Gure mundu erreferentziala osatzen dute: literaturak, zinemagintzak, eta bestelako sortze ereduak. Gure iturriak horiek ere badira. Li-

Batak bestea elikatu guran

Hitzekin lan egiten duten bi profesional gonbidatu zituen aurreko astean Oñatiko bibliotekak: Maialen Lujanbio bertsolaria eta Harkaitz Cano idazlea. Danele Sarriugarte idazlearen eskutik etorri ziren II. Literatura Topaketan parte hatzera

teratura, gaur egun, hurbileko jarduna da, eta, gainera, lehen ez bezala, gaur egun, harremana naturala da idazleen eta bertsolarien artean".

Canoren ustetan, aspaldikoa da arlo bien arteko lotura. "Lurralde komun asko daude; demagun, kantagintza. Kantu asko daude idazleek egindakoak; eta ez orain bakarrik. Hor zeuden: Gabriel Aresti, Jon Mirande... Hor badaude literaturaren eta bertso gintzaren arteko zubiak, kantagintza tarteko, betidanik egon direnak eta etengabe izan direnak. Era berean, harrigarria

"LITERATURAREN EZAUGARRI ASKO BEREKANATU DITU BERTSOLARITZAK"

MAIALEN LUJANBIO

iruditzen zait ez egotea euskal literaturaren historian bere protagonista bertsolari arketipiko bat duen eleberririk. On Kixote bertsolari bat. Bertsolaria beste literarioak diren pertsonaia gutxi daude".

Bertso eta idazle eskolak

Bertso eskolen sorrerek ekarri zuten bertsolariaren garaikidetzea, Lujanbioren ustetan; eta horrek ekarri du bertsolariak harreman naturalak izatea antzerkigileekin, idazleekin, zinemagileekin; eta, ondorioz, askotariko elkarlanak egitea. "Era berean, iruditzen zait gaur egungo bertsolariaren bat-bateotasuna idatziz ikasten den heinean, bertsolariak eta bertso gintzari eragin diola, eta, ondorioz, erregistro idatziagoan egiten dela orain bertsoan. Ondorioz, bisualagoak dira bertsoak, na-

rrazio gehiago dute, deskripzioak ere bai, gehiago garatzen dituzte istorio formatuko bakarkako gai horiek. Hau da, literaturaren ezaugarri batzuk bereganatu ditu bertsolariak; baina baita zinemagintzatik edo musikatik ere. Horren erakusle, gaur egun, ez dugula bakarrik garai bateko doinuekin kantatzen".

Canok lekukoa hartuta, bertso eskolei literaturatik inbidiaz begiratzen dietela esan zuen. "Idazle eskolak badauden arren, oso asimetrikoak eta anitzak dira -parte hartzaileen adinari eta helburuei erreparatuta- eta

"LITERATURATIK MIRESMENEZ BEGIRATZEN DIEGU BERTSO ESKOLEI"

HARKAITZ CANO

horregatik oso zaila da kideen arteko talde izaera mantentzea. AEBetan idazten ikasteko eskolen tradizioa dago, baina, hemen, oraindik ere musen kontu hori dago. Literatura egiten erakustea desartikulatuta dagoen zerbait da; eta bertsolariak oso ondo landu du arlo pedagogikoa".

Taldekako ala bakarkako lana?

Bertso eskolen arrakastaren gakoetako bat, Canoren ustez, bertsolariak duten talde izaera da. "Elkarrekin egotera ohituta zaudete. Elkarrekin joaten zarete saioetara, saio tarteetan berba egiten duzue... Elkar ondo ezagutzeak gauza asko errazten ditu. Gure arloan, berriz, nor bere aldetik doa, gehienetan". Lujanbio gaineratu zuen, orduan, bertsolariak taldeatasunaren kontzientzia izateak taldea lotzen duela, eta egoa apaltzen.

Idazleak, orokorrean, bakarrik egiten du lan, baina, une zehatz batzuetan, editorea du lankide. "Editorearen figura aldarrikatzen dut nik; izan ere, editoreak barruan duen idazlea sakrifika-tu du beste idazleen alde. Elkarriketa asko izaten dituzu editorearekin, eta, kasu gehienetan, liburu osoa osatuagoa da editoreen eskuetatik pasatu eta gero".

Era berean, itzultzailearen eragina ere aipatu zuen Canok. "Ez dut berdin idazten idatzitako lanak itzultzen dituztela dakidanetik. Noiz eta non irakurriko duten ahazten saiatzen naiz, nire idazteko moduan eraginik izan ez dezan".

Zuzenean eta diferituan

Bertsogintzan, publikoa sorkuntzaren parte dela zioen geroago Lujanbio. "Askotan, badakizu zer kantatuta gustatuko den ala ez, baina, akaso, ez duzu hori kantatzeko gogorik. Publikoarekin etengabe negoziatzen ari da bertsolaria. Ikuslearen aurpegiek, txaloek... etengabe eragiten dute gure jardunean. Gakoa, publikoak noraino eragin nahi duzun jakitea da".

Idazleen kasuan, aurrean fisikoki publikorik ez duten arren, kondizionamenduak daudela erantzun zuen Canok: "Gure kasuan, publikoaren eragina diferitua da. Aukeratzen duzun idazteko gaiak eragina izan dezake gero, nork eta non irakurri duten liburuak. Irakurle txokoak sortu bitartean, gure publikoa irudikaria zen".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko azaroko zozketa!



Tableta

Parte hartzeko sariaren izena:
Tableta



Umeentzako jokoa Perretxiko zaindaria

Parte hartzeko sariaren izena:
Perretxikozaindaria



Sarrerak Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikutz



Otarrea Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena:
Otarrea



PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "sariaren izena"
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.


Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioitzatzea.

Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ZUMELAGA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!



KLUBA *Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

'Vuelos' dantza ikuskizunerako sarrerak ditugu

Amaia antzokian, Arrasaten. | Azaroaren 12an, 18:00etan

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "ikuskizunaren izena"
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioitzatzea.

Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria
jasotzeko,
zozketetan parte
hartzeko eta txartelaren
abantailez gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2016 + 2017 osoa: 55 euro.
Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

"Erakusketako edukia nahiko freskoa da"

JULEN RIBAS KOMIKIGILEA

Komikigile arrasatearraren lanak Donostiako Udal Liburutegian dagoen *Euskadi fantastikoa* izeneko erakusketan daude ikusgai azaroaren 19ra arte

Ibon Carmona ARRASATE

Marrazteko ohitura eta zaletasuna txikitatik dauka Julen Ribas (1981) komikigile arrasatearra. Gaztetan Arte Grafikoak ikasi zituen Bartzelonan, eta bertan ezagutu zuen komikien mundua. Geroztik, ilustratzaile egiten du lan eta hainbat komiki argitaratu ditu. Oraingoan, bere lanak Fantasiatzko eta beldurrezko Zinemaren Astearen barruan egiten den *Euskadi fantastikoa* erakusketan aurkeztu dira, eta, hain zuzen, Donostiako Udal Liburutegian egongo dira ikusgai.

Zer sentitzen du batek bere lanak paretetan eskegita ikusita?

Antolatzaileek gonbita eskaini zidatenean, lotsa pixka bat sentitu nuen. Azken finean, nire egitekoa liburu eta komikientzat marrazkiak egitea da. Hori oinarri izanik, jendaurrean nire marrazki eta zirriborroak erakusteko biluzte sentsazio bat sorrarazten dit.

Zer aurkituko dute Alderdi Ederko liburutegira gerturatzen direnek?

Azken sei urteetan egin ditudan lanen zatiak ikusi ahal izango dira. Nire kasuan, lan zaharrek beti izaten dut harreman nahiko arraroa; izan ere, hauei errazago topatzen dizkiet akatsak. Alde horretatik, erakus-



Julen Ribas erakusketan. JULEN RIBAS

ketako edukia nahiko freskoa izango da. Gainerakoan, ikusiko diren lanak modu tradizionalen eginak daude, eta, digitalki ere lan egiten dutan arren, erakusketara eraman ditudan lanak paperean marrazturikoak izan dira.

Hortaz, erakusketan zure lan guztien aperitibo txiki bat eskainiko da?

Komiki bateko orrialde guztiak erakustea ezinezkoa denez, lan ezberdinetako zatiak hautatu ditut. Horrez gain, hainbat faktorerengatik argitaratuak izan

ez diren baztertutako zenbait lan ere ikusi ahal izango dira bertan.

Gustura geratu zara erakusketak hartu duen itxurarekin?

Mundu honetan sartu nintzenetik, askotan jarraitu izan ditut gertutik marrazkilari eta komikigile ezberdinen lanak. Orain markoetan eta beira-arasetan sartuak dauden lanak nireak dira, eta horrek poztu egiten nau.

Nondik jaso zenuen erakusketaren proposamena?

Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinema Asteko antolatzaileak *Xabiroi* komiki-aldizkarian nirekin lan egiten zuen Iñaki Hologado komikigilearekin jarri ziren harremanetan. Honek proposamena luzatu zidan, eta, hasiera batean errespetua eman nuen. Hiri batean, eta, are gehiago, Donostia 2016 programa kulturalaren barruan egingo dela kontuan izanik, aukera paregabea iruditzen zait erakusketan parte hartzea.

Erakusketaz gain, zein proiektutan zaude murgilduta?

Xabiroi aldizkarian *Santa Familia* komikia ari naiz kapituluak argitaratzen Eider Rodriguez idazlearekin batera. Istorio sarkastiko bat kontatzen da bertan.

Hogeitaz taldek hartuko dute parte aurtengo film laburren rallyan

Urtero bezala, taldeek egun osoa izango dute laburra ekoizteko. Lantzeko gaia egunean bertan emango da

I.C. OÑATI

2010. urteaz geroztik, herrian izaten den eta euskara eta filma uztartzen dituen film laburren txapelketa da honako hau. Taldeak goizeko zortzietan hasi eta egun osoan zehar arituko dira

film laburra ekoizteko lanean. Hain zuzen, taldeek 11 ordutan burutu beharko dituzte lanak egunean bertan emandako gaia eta objektua landuz. Modu horretan, bihar ez da zaila izango herriko gune ezberdinetan gra-

bazioak ikustea. Film laburra egiteko epea 19:00etan amaituko da, eta ordu horretara arte lanak Gaztelekuan entregatu ahal izango dira. Ondoren, 21:30etik aurrera lanen proiektzioa eta sari banaketa egingo dira Santa Ana antzokian.

Talde kopurua bere gehiengora iritsi eta gero, antolatzaileek egunean itxi zuten izen emate epea. Guztira hogeitaz talde izango dira txapelketan parte hartuko dutenak; horien artean, azken edizioetako garaileak daude.



GERTURATU ETA HAMALAU

UDAZKENEAN ERE, GOIENA TELEBISTA

goiena[“]
ZU HEMEN ZAUDE

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Santa Marina kalean 55 metro koadroko etxebizitza salgai. Hirugarren solairuan. Gela guztiak kalera begira. Egongela, sukaldea, komuna eta bi logelakoa. Sotoa ere badu. 605 70 98 60 edo e-posta: santamaina10@gmail.com

Bergara. Etxebizitza salgai Fraiskozurin. Hiru logela, egongela, sukaldea eta nagusiendako egokitutako komuna. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. Dena kanpora begira. Argitsua. 687 57 84 23

103. ERRENTAN EMAN

Aramaio. Etxebizitza ematen da errentan. Leku onean. Ikuspegi politak. Eguzkitsua. Hiru logela, egongela eta bi bainugela.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean, Juan Carlos Guerra plazan. 80 metro koadrokoa. Hiru logela eta komun bat. Igogailuarekin. 679 25 72 46

Elgeta. Etxebizitza ematen da errentan. Sukaldea, bi logela, egongela eta komuna. 650 23 10 19

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 07 99 70

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan. Nagusiendako egokituta badago, hobeto. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

Bergara. Kaixo, bikote gazte bat gara eta etxebizitza txiki baten bila gabilta Bergaran. Logela bat izatearekin nahiko. Kokalekuaren inguruan malguak gara. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 92 06 49

105. ETXEAQ OSATU

Bergara. Bergarako bi neska gara eta etxea osatzeko pertsona baten bila gabilta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 28 76 80

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje itxia salgai Boni Laskurainen. 687 57 84 23

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Ilea Arrasate

Esperientziadun ile-apaintzailea behar da.
943 79 87 62

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Arrasate. Neska arduratsua gertu nagusi eta umeak zaindu zein garbiketa lanak egiteko. Jardun osoz, erdiz, gauzez eta baita asteburuetan ere. 618 14 71 34

Arrasate, Bergara eta Oiñati. Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. Harrematarako: 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Arrasate. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Orduka, astelehenetik ostiralera. 622 24 86 64

Bergara edo inguruak. Neska euskalduna lanearako prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Esperientziarekin, arduratsua eta disponibilitate osoarekin. 618 92 40 53 edo 943 76 25 85

Bergara. Kaixo! Irakasle graduua duen neska euskalduna naiz eta haurrak zaintzeko prest nago. Goizez zein arratsalde. Esperientzia dut haurrak zaintzen eta partikularrek ematen. 659 29 14 63

Debagoiena. Esperientziadun emakumea, pertsona nagusiak edo haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. 632 93 38 29

Debagoiena. Arratsaldetan garbiketa eta nagusi zaintza lanak orduka egiteko gertu nago. Autoa daukat eta badakit janaria prestatzen. Esperientzia. 678 01 16 09

Debagoiena. Elkartek eta atariak garbitzen lan egingo nuke. Baita mahai-zapiak ere. Baita nagusiei lagundu, janaria prestatu eta etxeko lanak egiten ere. Lege paperak eguneratuta eta esperientzia. 625 28 38 11

Debagoiena. Emakumea gertu lanerako. 13 urteko esperientzia dut jatekoean, garbiketa enpresan aritutakoa naiz, umeak zaindu eta nagusiei laguntzen ere aritu izan naiz, etxeko lanak egiten edota tailerlean. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Dependentsia daukatenak edota bestela. Esperientziaduna. 691 45 23 05

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka lan egiteko prest nago. Zaintzan edota garbiketak egiten edo bai. 679 45 97 18

Debagoiena. Gizona lan bila: denetarik garbiketak, banatzaile eta abarreen. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: denetarik garbiketak, tailerlean, dendari edo nagusiak zaintzen. Orduka eta baita gauzez ere. Erreferentzia onak ditut. 679 60 08 48

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo orduka. Esperientziaduna. 673 90 69 74

